

GAIA: GURASOAK ETA HEZKUNTZA • ESPERIENTZIA: ZU ZEU IZAN •  
EKARPENAK: ESKOLA TXIKIAK • GALDEIDAZUE: JOSE RAMON MAUDUIT •  
ZUGARRAMURDIKO SORGINEN ETXEA • ATZEKO ATETIK: ONINTZA ENBEITA

**hh**  
hik hasi

**144**

4 EURO • 2010EKO URTARRILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



*ELKARRIZKETA*

**SONIA COMPOSTELA**

psikomotrizitateko aholkulari italiarra

Cornelia Funke  
**TINTA - BIHOTZ**

+13 urte



Eleberri magikoa da hau, fantasiazko eleberri bat; liburuen mundura bidaia eta literatur testu unibertsalei maitasun aitormen bat. Zinemara eraman den eleberri hau trilogia baten lehenengo alea da.

**EZEKIEL**  
Jasone Osoro

+13 urte



Ezekielek hamalau urte ditu. Bizitza bi partetan banatuta dauka; batetik etxeko istiluak daude, eta bestetik kanpoko giroa: eskola, lagunak, koadrilaren lokala eta... neskak.

**NIRE AMAK EZ DAUKA ERREMEDIORIK**  
Antxiñe Mendizabal • Morkots

+12 urte



Iratik hamabi urte ditu eta oso argi ditu bere nahiak eta helburuak. Amak, ordea, oso bestelako ideiak ditu gauza askotan; espezial samarra da, xelebrea ez esateagatik.

# GOZATU LITERATURA

[www.elkarargitaletxea.com](http://www.elkarargitaletxea.com)

**elkar**

**RISKYREN IPUIN POLITENAK**  
Joxemari Iturralde • "Matxin"

+10 urte



Risky eta bere lagunak abenturazale amorratuak dira, era guztietako abenturak bizitzea gustatzen zaie. Ipuin honetan, bakoitzak gustuko duen istorioa kontatuko du.

**JOXEMEREN ASMAZIOAK**  
Xabier Mendiguren • Jon Zabaleta

+10 urte



Alferra da Joxeme: gauza guztien gainetik ohean gelditzea gustatzen zaio, ezer egin gabe. Baina atzetik ditu beti helduak, hau eta hori egiteko agindu.

Mikel Valverde  
**RITA ETA HILOBI LAPURRAK**

+10 urte



Ritaren abentura bizi-bizi bat, Egipton kokatua, sekretu zirrargarritz betea.

# aurkibidea



**8**  
gaia

## FAMILIA ETA ESKOLA

Familia oso instituzio konplexua da. Oso konposizio eta egoera anitzekoak dira, gero eta anitzagoak, gainera. Eskola ere, oso konplexua da. Eskola bakoitzak bere berezitasunak ditu. Horregatik, heziketari ahalik eta etekinik handiena atera nahi bazaio, bi instituzioek elkarrekin aritu behar dute lanean.



**16**  
elkarrizketak

## SONIA COMPOSTELA

Italiako Bassano di Grappa hiritik etorri berria da Uned-Bergarako Psikomotrizitate Praktikako Eskolak Gasteizen antolatu zuen jardunaldietara. Sonia Compostela Bernard Aucouturierren psikomotrizitate praktikan ari da aholkulari gisa.

**5** editoriala

**6** kronika

**8** gaia

**FAMILIA ETA ESKOLA**  
BI INSTITUZIO KONPLEXU

**16** elkarrizketa  
**SONIA COMPOSTELA**

**24** esperientziak  
Zu zeu izan. Bazen Behin Clown

**26** ekarpenak  
Eskola Txikiak. Dagokienaren eske

**28** ekarpenak  
Kosmodetektagailua ikasgelara. Zientzia sustatzeko tresna

**30** galdeidazue  
Bigarren mailako haurrak lehen mailako herrialde batean?  
Jose Ramon Mauduit

**33** berriak

**40** nora joango gara?  
Zugarramurdiko sorginen etxea  
Egonaldi magikoa

**42** Atzeko atetik  
Onintza Enbeita

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilu eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Izaskun Beraza eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Bideo jokoak. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2009-12-09). Kopurua: 3.700 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

# Harpidetza orria



**hik hasi<sub>k</sub>**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
**harpide zaitetz!**  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan eta  
argitararutzen ditugun  
gainontzeko materialetan

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**hik hasi** Euskal heziketarako aldizkaria  
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua  
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA  
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK  
(BEZ barne) 50 euro

# editoriala

# urtarrila

## *Madriletak bueltan hainbat gogoeta*



**Gure eskoletan lehenetsi diren balioak elkartasuna, justizia, kritikotasuna, iritzi ezberdinekiko errespetua, ekintzailtza eta beste hainbat dira. Zerrendaturik daude Hezkuntza Proiektuetan. Zer lehenetsi da, baina, jendartean?**

Madriletak etxerako bueltan egindako hausnarketek osatu dute zenbaki honetako editoriala.

Bidaia, —Euskal Herritik Madrilekoa, alegia—, ez da aukerako ez une egoian suertatutakoa. Zerbait izatekotan, ordea, beharrezkoa izan da.

Madrielen, berriz, beste bost euskaldun gehiago epaituko dituzte: Iñaki, Xabier, Martxelo, Joan Mari eta Txema. Haien delitua, euskal jendarteari euskara hutsezko egunkari bat eskaintzarekin amets egitea. Eta delitua are larriagoa bihurtu duen ekintza, ametsa egi bihurtu eta EGUNKARIA egituratzea gure esku jarritz kalean.

Guk ere gure irakasle eta hezitzaile ahotsa altxa nahi genuen. Ahotsa altxa eta euskalgintzaren eta jendarteko beste hainbaten ahotsari batu. Haiekin batera esan nahi genuen legez eta epaiez ezarri nahi diguten bide honetatik nekez joan gitezkeela jendarte hobeago, justuago, baterantz. Horretarako joan gara Madri-lera.

Hezkuntzan dihardugunok ongi dakigu norberaren ideia politikoen eta

mundua ikusteko modu partikularraren gainetik, gure egitekoa bihar-etzi jendartea osatu eta kudeatuko duten gaurko haur eta gazteak hezitzea dela.

Eta hezitzea zein hitz zabala eta sakona den ikusi dugu behartua baina beharrezkoa den gure bidaia honetan.

Hezitzea, batez ere, pertsonoi duintasunez eta libreki bizitzeko tresnak eskaintzea esan nahi du: norbere burua aberasteko eta jendarteko partaide guztientzat bidezkoagoa izango den mundu baten alde egiteko.

Hezitzeke moduak asko izan litezke. Eta horretan ere eskarmentu luzea dugu hezkuntzan.

Heziketa autoritarioa izan liteke, totalitarioa. Hor ez dago ekarpenik egin beharrik, boterea duenari obeditu eta norberaren nortasunari eta identitateari uko egin besterik ez, gehienetan.

Heziketa partehartzailea izan liteke. Nork berak pertsona gisa eta talde gisa dituen eskubideak eta beharrak kontuan hartu eta errespetatzen dituen. Pertsona guztiek kontaktzen dute, agintea dutenak zein ez dutenak. Pertsona besteengandik

bereizten gaituena denak aberasteko aukera gisa ikus liteke.

Eskoletan lehenetsi diren balioak elkartasuna, justizia, kritikotasuna, iritzi ezberdinekiko errespetua, ekintzailtza eta beste hainbat dira. Zerrendaturik daude Hezkuntza Proiektuetan.

Gure hezkuntzan hezitzeke bigarren era horri heldu diogu. Batzuetan asmatuz eta beste hainbatean ez hainbeste.

Madrielen ikusitakoak eta bizitakoak buruan, denek ontzat eman ditugun balioetan hezitako lagunekin gure jendartean zer gertatzen ari den etorri zaigu gogora.

Gaureuskalgintzan konprometitu diren lagunak izan dira. Atzetik, aurki, beste jendarte eredu baten alde konprometitutakoak. Gazteak, berriz, noiznahi.

Eta Madrilera negarren bidai honetan benetan zer den epaitu eta zigortu nahi dena agertu zaigu lotsagabeki. Horretarako, frogarik, akusaziorik edo ezer ez badago ere.

Nahiko genuke haxe balitz Madri-lera egin beharreko azken bidaia. Asko esan nahiko luke horrek, denen alde.

# kronika

Bi orduko lanuztea egin zuten Euskarabidean irakasle lanean aritzen diren hogeit hamar teknikaririk. Ezarri dizkieten lan baldintza berriak gaitzesteko egin zuten lanuztea. Euskarabidea Euskararen Nafar Institutuko irakasleen hitzetan lanean daramatzaten 21 urteetako baldintzarik okerrenak ezarri nahi dizkiete. Salatu dutenez, ordutegiari eta egutegiari dagokionez, administrazioko beste euskaltegiekin eta Lehen Hezkuntzako irakasleekin alderatuta "baldintza nabarmen okerragoak inposatu" nahi dizkiete foru agindu berri baten bitartez. Egiten duten lanaren araberako eskubideak eskatu zituzten Euskarabideako eraikinaren parean. Hain zuzen ere, *Irakasle lanak, irakasle baldintzak* izan zen aukeratu zuten leloa.



## “Lehentasuna” eskatu du Eskola Kontseiluak euskararentzat

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aurkeztu duen dekretu proiektuaren “hitzaurrean” euskarari “Lehentasunezko arreta ematen dion mezu baikorra jasotzea” proposatu du Euskadiko Eskola Kontseiluak Konrado Mugertza presidentearen ahotik.

Izan ere, Mugertzaren hitzetan Eskola Kontseiluaren dokumentuetan jasota dago euskara dela “argi eta garbi” ikastetxeetan komunikazio hizkuntza nagusia. Halaber, Eskola Kontseiluaren ustez, ikasle guztientzat etapa bakoitzaren amaierako oinarritzko eskakizun mailak zehaztu behar dira.

Bestalde, “Hizkuntza ereduen siste-

ma gainditzeko beharra” ere agerian utzi dute Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntza eragileek. Besteak beste, Mugertzaren hitzetan, ereduen sistemak ez dituelako ikasle guztien emaitzak bermatzen.

Eskola Kontseiluaren txostenak, era berean, euskararen erabilera eskolaz kanpoko jardueretan ere sendotu ahal izateko ekimenak sustatu ditzala eskatu dio Hezkuntza Sailari. Baita euskararen irakaskuntzako salbuespenak ahalik eta gehien mugatzeko ere.

‘Euskal Herria’ terminoaren inguruan ere hitz egin du Eskola Kontseiluak. Mugertzaren hitzetan ados daude “Euskal Herria” terminoa “Euskadirekin” ordezkatzearrekin esparru politiko-administratiboari dagokionez. Baina eskatu dute “Euskal Herria esparruaren ikusmoldea” onargarria izatea natur zientziak, gizarte zientziak eta beste curriculum esparru batzuetan ere.

Eskola Kontseilua da Eusko Jaurlaritzak hezkuntza gaietarako duen kontsulta eta aholkularitza erakundea. Bertan daude hezkuntzako gizarte eragile gehienak, eta arauak onartu edo baztertu beharrean, proposamenak egiten ditu.

"Haurrak egin nahi ez duena egin dezan lortzeko, hezitzaileek iruzur desberdinak erabiltzen dituzte: hor dago, hain justu, gezurra ikasgaiaren sorrera"

Wittgenstein



## Hezkuntza erreformaren aurkako mobilizazioak Ipar Euskal Herrian

Luc Chatel Frantziako Hezkuntza ministroak proposatutako erreforma ozen deitoratu zuten Ipar Euskal Herriko ikasleek joan den abenduan. Hainbat egunetako mobilizazioetan lizeoak blokatu eta manifestazio ugari egin zituzten langile eta ikasle sindikatuak deituta.

LAB-Irakaskuntzak salatu zuenez "erreforma horren helburua, oroz gainerik, izan diren eta izanen diren postu murrizketak (80.000 lanpostu 2012ra bitartean) ahalbidetzea besterik ez da, irakaskuntzaren kalitatea, ikasleentzako aukerak eta irakasleen lan baldintzak okertuz".

Ikasleek bestalde, Lapurdiko zazpi lizeotako sarrerak blokatu zituzten sarrera galarazteko. Eta abenduaren 10ean Baionako tren geltokitik abiatu zen manifestazioa egin zuten. *Ikasi eta Irauli* ikasle sindikatua zihoan "Hezkuntza ez da salgai" lelopean egin zen manifestazioaren buruan.

Frantziako Hezkuntza ministroak ikasleentzako sostengu orduak ezarri nahi ditu indarrean. Eta, besteak beste, historia eta geografia ikasgaiak kendu nahi dizkie lizeoko azken urtean dauden zientzia arloko ikasleei. "Ikasle eta irakasleen iritzia kontuan hartu gabe, erreforma egin nahian dabil Frantziako Hezkuntza azken urte luzeotan", salatu zuen *Ikasi eta Irauli* ikasle sindikatuak.

Ikasleen iritziz, baina, Chatelen erreforma hezkuntza publikoa sunsitzeko bidean emandako urratsa baino ez da. Izan ere, ikasleen ustez, erreformaren arrazoi nagusiak ez dira hezkuntza arlokoak, ekonomikoak baizik. *Ikasi eta Irauli*ko ikasleek azaldu zuten, erreformaren ondorioz 40 ikasle egon daitezke gela batzuetan. Horrela, ikasleak neurri gabe metatuz, hezkuntzaren kalitatea kolokan jartzen dela salatu dute ikasleek.

Nafarroako Ikastolen Elkarteari bi milioi euro ematea onartu du Espainiako Kongresuak. Pello Mariñelarena NIEko zuzendariaren hitzetan "diru laguntza horren bidez ikastola batzuen egoera konpon daiteke". Irtenbidea, baina, behin-behinekoa baino ez litzateke izango. Nafarroako hainbat ikastola egoera ekonomiko larrian daude; Irunberrikoa, Tuterakoa, Lodosakoa eta Vianakoa, hain zuzen. Ikastola horiek guztiak eremu erdaldunean daude eta beraiek bakarrik eskaintzen dute eremu horretan D ereduan ikasteko aukera. Ikastola horien egoera legezkatze aldera, ikastolei urtero 1,7 milioi euro bideratzeko konpromisoa hartu zuen Sanzen Gobernuak. Ordutik, laguntza hori txikitzen joan da, eta datorren urteko abuztuaren 31n guztiz desagertuko da.

Duela gutxi, Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako lehendakariak jakinarazi zuen Nafarroako eta Iparraldeko ikastolek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik jasotzen zuten 1,9 milioi euroko laguntza bertan behera geldituko zela. Hain zuzen ere, Miguel Sanz Nafarroako presidentearentzat diru laguntza horiek ematea Nafarroako hezkuntza sisteman esku sartzea zela adierazi zuen.

# GAIA

**Familia eta eskola**

*Bi instituzio konplexu*







- Jolasak
- Irteerak (egun pasa, asteburu pasa,...)
- Argazkiak eta agurrak

**Inor ez da jakinda jaiotzen. Ikasi, ikasi eta ikasi. Horixe da bizitza. Eta guraso izaten ere ikasi egiten da. Ez da betebeharr erraza, eta asko dago jokoan: seme-alaben heziketa, hain zuzen. Izan ere, ez da nahikoa seme-alabak eskolara bidaltzearekin. Familia, orohar, sozializazio eragile oso garrantzitsua da haurrentzat eta, beraz, zuzenean hartu behar du parte bere heziketan. Horregatik aipatzen da behin eta berriz gurasoek eta eskolak elkarlanean aritu behar dutela seme-alaben heziketa lanean. Nola baina? Bide horretan lanean ari diren hainbat proiektu ekarri ditugu orrialde hauetara, eta egungo hezkuntzako hiru sare nagusietako ordezkariak gurasoen eta eskolaren arteko harremanei buruz duten iritzia ere jasoko dugu.**

## Gurasoen eta eskolaren arteko harremanak

Munduko hainbat tokitan egindako ikerketen arabera, gurasoak eta eskolako langileak elkarrekin aritzeak eraguztietako emaitzak hobetzen ditu. Horregatik, bien arteko erlazioa eta kolaborazioa zaindu eta sustatu beharrekoak dira.

Familia oso instituzio konplexua da. Familia guztiak ia-ia desberdinak dira. Oso konposizio eta egoera anitzetakoak, gero eta anitzagoak, gainera.

Eskola ere, bestalde, instituzio gisa, oso konplexua da. Eskola bakoitzak bere berezitasunak ditu, bere antolaketak, bere ohiturak, bere proiektua...

Horrela ba, bi instituzio konplexuen arteko erlazioaz ari garela kontuan hartu behar dugu.

### Erlazio ona beharrezkoa da

Zaila bezain interesgarria eta beharrezkoa da erlazio ona izatea arlo guzti-tako emaitzak hobetzea baldin bada helburua, behintzat. Ikastetxe bakoitzak erronka saihestezina du gurasoen eta langileen arteko erlazio onarena. Erlazio txarrak sortzen badira, arazoak ere izaten dira eta horrek komunikazioa eta kolaborazioa zailtzen ditu.

### Beldurrak gaintitu

Batzutan, familiak beldurra dio eskolari. Eta beste batzutan, eskolak beldurra die hainbat familiari. Gurasoek beren seme-alabei buruz zer esango dieten kezka dute. Eta, aldi berean, ira-

kasleei gurasoek zer eskatuko ote dieten ere kezkatzen die. Epaitze mota bat egoten da tartean eta horrek beldurra sortzen du. Beldur horrek, defentsan jartzen ditu familiak eta defentsan irakasleak, defentsan eskola... Maiz, defentsa horiek ez dira konszienteak eta ez da jakiten zergatik gertatzen diren ere. Horrek, hausnarketarako bidea eman beharko liguke. Kolaborazioa, parte hartzea, elkarlana bidea izan liteke hori guztia gaintitzeko.

### Konplexutasuna erronka

Familia mota ugariarekin egiten dugu topo eskolan bertan. Familia anitzasun horrek aberastu egiten du, eta, aldi berean, zaildu. Hori kontuan, eskolaren eta irakasleen ikuspuntutik, anitzasun hori onartzen eta aurreiritzirik gabe tratatzen ikasi behar da. Hori baita funtsa, abiapuntua, errealitatea ezagutzuz eta dagoenetik abiatuz eskolak dituen helburuetara bideratzeko aukera. Tarteka, aurreiritziak orokortzeko joera izaten da, familia bakoitza eta haur bakoitza desberdina dela ahaztuta.

### Eskolak mugak ditu

Heziketa kontuan gehiegi jarrita dago arduraren irakasleengan eta eskolan. Jakina da eskolak bakarrik ezin duela hezi. Izan ere, familia da heziketaren arduradun nagusia.

Eskolak hezitzen du, noski baietz! Baina neurri batean soilik. Parte garran-



# G

# Gurasoak eta eskola harremana

tzitsuena familiari dagokio.

Ezin da ahaztu, bestalde, komunikabideek, aisialdiak, inguru sozialak eta abarrek ere badutela bere eragina ikasle bakoitzaren heziketan.

## Familiak mugak ditu

Askotan, aitak eta amak biek lana egiten dute. Horrela izatea nahi dugu, hala sinisten dugu, eta, errealitatean hala da. Gurasoak nekatuta iristen dira etxera beren lanetatik, seme-alabekiko atentzio, dedikazio eta ondorio gutzietan. Gainera, askotan, guraso bakarra izaten da, egoera zailduz. Hezitzeko mugak nabarmenak dira.

## Elkarlana da bidea

Sarritan, irakasleei iruditzen zaie familiak ez dutela nahikoa egiten eta familiei ere iruditzen zaie irakasleek ez dutela egin beharrekoa egiten.

Familiak mugak ditu eta eskolak ere mugak ditu. Bi instituzioek muga handiak dituzte hezitzeko garaian, haur bakoitzaren heziketa garatzera-koan... Eta errua, berez, ezin zaio inori bota. Bi aldeak, printzipioz, umea ongi hezitzea nahi dute. Hala izanda, zer egin liteke?

Irakasleak edota langileak, oro har, ongi egotea komeni da, errespetatuak sentitzea. Hezitzalea gero eta hobeto egonda, gurasoekin gero eta erlazio hobea izanda, ikasleak hobeto egongo dira eta etekin handiagoa aterako zaio heziketa prozesuari.

Eskolako irakaslea, jangelako langilea, garbitzailea, administraria, autobusetako profesionala... denak dira instituzio konplexu horren partaide, eta gurasoak ere bai. Horrez gain, eskolako langile asko guraso ere badira.

Horregatik, eskolaren eta familiaren artean egiten den banaketa ez da hain argia eta erreal. Nolabait esateko, denen egitekoa da neska-mutilen heziketa eta banaketa baino, elkarlana da bilatu behar dena.

## Zer hobetzen da gurasoek eskolaren bizitzan parte hartzen badute?

Alde batetik, eragin positiboa du seme-alaben emaitzetan. Bai arlo akademikoan eta bai egokitze, motibazio, portaera, jarrera eta abarretan ere.

Alaba-semeek gurasoen parte hartzea eta interesa ikusten dutenean errendimenduan hobetzen dute, seguruagoak sentitzen dira eta horrek lagundu egiten die heziketa prozesuan.

Bestalde, parte hartzen duten heinean, gurasoek ere hobeto ezagutzen dute ikastetxea, dauden aukerak eta zailtasunak, harremanak egiten dituzte eta giroa hobetzen da. Horrekin, ez ezagutzeak beldurra sortzen duen bezala, ezagutzeak konfiantza eta jarrera baikorragoa sortzen du eskolarekiko.

Eskolak familien premiak hobeto ezagutzen dituztenez, gainera, motibatuagoak aritzen dira horiei erantzun nahian, eta, horrek guztiak aldeko eragina izaten du.

## Nola erraztu familiaren eta eskolaren arteko parte hartzea

Bi aldeen arteko komunikazioa ezinbestekoa da. Komunikazioak bi norabideetan izan behar du. Hau da, familiak informazioa jaso behar du eskolatik (eskolak dituen eskaintzak, parte hartzea errazteko dauden aukerak, zer eta nola ikasten den, nola lagundu eskolan eta etxean...) eta eskolak jaso behar du familiatik (dituen beharrak, ametsak, proiektuak, gogoak eta kezak, zertan parte hartzeko eta laguntzeko prest dagoen...).


Familia bakoitzaren egoera, itxaropenak, nahiak, eta mugak ezagutzea ere egoki litzateke, parte hartze prozesuan bidea errazteko.

## Nola hobetu

Jarrera positiboa izatea komeni da. Egoera erreala ahalik eta ondoen ezagutzea litzateke abiapuntua. Diagnostika egin familiak eta eskolako langileak egiten ari direna ezagutzeko, bai etxean eta bai eskolan. Eta hori ezagututa, denok adostutako plana egitea komeni da heziketa prozesua hobe dadin.

Ez dago bidezidorrik, elkar ezagutzea da bidea, eta horretarako konfiantza giroa ezinbestekoa da.





## Gurasoentzako tresnak

Asko dira gurasoek euren seme-alaben heziketan zuzenean parte hartu behar dutela uste duten pertsona, talde edota elkarteak. Hori dela eta, Euskal Herrian badira gurasoen lana errazteko helburuarekin lanean ari diren hainbat proiektu. Euren seme-alaben hezkuntzaren gaineko kezka duten gurasoek bultzatutakoak dira batzuk. Beste batzuk, berriz, guraso horiek izan ditzaketen premiei erantzuteko helburuarekin sortutakoak.

Jarraian, *www.guraso.com* webgunea, *Gurasolandia* haur eta helduentzako parkea, *Egiteko prest!* aldizkaria eta *Gurasotegi* egitasmoa ezagutuko ditugu.

### GURASO.COM

Gaztea da oso *www.guraso.com* eta horrela definitzen du bere burua: gurasoen premiak asetzeko webgunea. 2008ko irailean, Txus Arrietak webgunearen ideia aurkeztu zien Arrasateko Udaleko euskara teknikariei, eta azken horiek, ideia interesgarria zelakoan, Goiena Komunikazio Zerbitzuengana eta Txatxilipurdi elkartearengana jo zuten webgunearen bideragarritasuna aztertzeko asmoz.

Egoitz Larrañaga Txatxilipurdi elkarteko kidea da eta berak azaldu duenez “*Guraso.com* egitasmoa bizi dugun garaiotako ondorio zuzena da”. Hau da, “amatasuna eta aitatasuna egungo gizarte berdina honetara ekartzeko saioa”. Txatxilipurdi elkartearen ustez, guraso berriek seme-alaben heziketan aurkituko dituzten arazoak askotarikoak izaten dira.

Azken batean, ustezko xamurtasunaren orde zuzen honetan nagusi den estresak eraginda zailtasunak bi-

Kolaboratzaile talde batek hainbat gai lantzen dituzte webgunean.

derkatu egiten dira: haurdunaldi eta erditze zailak izaten dira, haurtzaindegiak eta haur eskolak gainezka daude, lana eta gurasotasuna uztartzea oso zaila da, heziketan joera berritzaileak daude etengabe, bikote banaketaren alternatiba mingarria presente dago, guraso adinduxeak ugaritzen ari dira...

Horiek guztiak kontutan izanda, “web gunearen helburu nagusia, gurasoentzako baliabideak eskaintzea da, informazio ezberdina biltzea eta familien eskura ipintzea”. Izan ere, gurasoek heldulekuak behar dituztela uste dute ekimena kudeatzen duten eragileek: “Gizarte post-moderno eta berdina go honetako eredu berriak jarri behar zaizkie: foroa zabaldu, esperientziak trukatu, informazio zehatza eta berezitu eman eta hartu...”, azaldu du Larrañagak. Bestalde, umeen heziketaren inguruko informazio asko dagoela uste duten arren, sarritan hutsala izaten dela diote. Eta informazio hori euskaraz topatzea, ia ezinezkoa dela. “Zalantzarik

gabe, gurasoentzako euskarazko informazio webgunea falta zen”. Orain, *www.guraso.com*-en, gurasoak subjektu aktibo izan daitezke, beren txokoa dute, eta beraien gauzez hitz egin dezakete. Azken finean, web gunearen erronka familia kontzeptua gaur eguneko begiekin ikusarazi eta hedatzea dela dio Larrañagak.

*Guraso.com* ekimenean parte hartzen duen Arrasateko Txatxilipurdi Haur eta Gazte ekintza elkarteak eskarmentu handia du aisialdian. Eta gaineko hezkuntza eremuetan bezalaxe, gurasoek aisialdian ere parte hartze zuzenagoa izan beharko luketela uste dute. “Gurasoak, gaur egun, subjektu pasibo bilakatu dira kasu askotan. Eta egoera horri buelta ematea ezinbestekoa iruditzen zaigu”, azaldu du. Azken finean, haurrek, hein handi batean familiarrean jasotzen dituzten balioak bereganatzen dituzte, eta Txatxilipurdiko kideen ustez askotan ez gara horren garrantziaz ohartzen.

# Gurasoak eta eskola harremana

## Gurasoentzako tresnak

### GURASOLANDIA

Aisialdian, hala nola, egunerokotasunean, gurasoen papera eta jarrera ezinbestekoa dela uste dute Txatxilipurdi elkartean, eta argi daukate gurasoekin lan egin beharra dagoela. “Gure funtzio eta helburua haur eta gazteengan euskararen erabilera sustatzea da, eta gurasoen bitartez gure helburuetara zuzen-zuzenean iritsi gaitetzke. Izan ere, behin eta berriz errepikatzen da haurren hizkuntza ohituretan zerikusi zuzena dutela gurasoen hizkuntza ohiturek”.

Helburu hori betetzeko asmoz, eta bide batez webgunea ezagutarazteko joan den azaroaren 15ean *Gurasolandia* familientzako jolas parkea antolatu zuten. Haur eta helduen arteko aisialdi harremana eta euskararen erabilera sustatzeko gunea bilakatu zen Arrasaten (Gipuzkoa) jarritako parkea. Hainbat ekintza eta tailer antolatu zituzten; familiaretan jolastu, kantatu, gozatu eta kontatu ahal izateko, besteak beste. “Hizkuntzaren transmisioa egiteko parada izan zen”.

Normalean, horrelako parkeetan begira egoten den helduak parte hartzea zen Gurasolandiaren helburua. Familiako helduak jaialdiko protagonista bilakatzea, hain zuzen. Dena den, parkea, nagusiki, gurasoei zuzenduta egon bazen ere haurren parte hartzea garrantzitsua izan zen. Aitak, amak, amonak, izebak, aititak, gertuko lagunak... edozeinek har zezakeen parte. Haurrek ezin baitzuten jaialdira bakarrik gerturatu.

Egun osoan euskarazko jostailuen



Haurrek eta familiek primeran pasatu zuten Gurasolandia parkean.




gunea, marrazketa gunea, psikomotrizitate gunea, aurpegi margoketa, *aerobitoia*, karaokea, ipuin-kontaketa, euskarazko abesti eta jolasak, txapa tailerra, teknologia berrien gunea, hankapaloak, ludoteka, dantzaldia... izan ziren. “Haur eta helduen parte hartzea esanguratsua izan zen”, azaldu du Larrañagak. “Kasu askotan, hezitzaileak gurasoak eurak izan ziren”.

### EGITEKO PREST!

2011eko neguan ekin zion Lea-Artibaiko mankomunitateak (Amoroto, Berriatua, Etxebarri, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markiña Xemein, Mendexa, Ondarroa eta Ziortza-Bolibar) gurasoentzako *egiteko prest!* euskara hutssezko aldizkaria kaleratzeari. Hasieran hiru hilabetetik behin argitaratzen zen, eta orain, urtean bitan. Orotara 3.500 familiak jasotzen dute aldizkaria.

Lea Artibaiko ume eta gazteen gurasoei zuzendutako proiektua da *egiteko prest!*, eta formazio topaketa batzuetan guraso talde batek proposatutako izena darama. Hain zuzen ere, Lea-Artibaiko drogen prebentziorako zerbitzuetik jaio zen proiektua. Bertan ikusi zuten gurasoekin lan egiteko beharra. Besteak beste, prebentzioari dagokionean. Elisabet Burgoa Lea-Artibaiko Amankomunazgoko gizarte zerbitzuen



- Jolasak
- Irteerak (egun pasa, asteburu pasa,...)
- Argakiak eta agurrak


arduradun teknikoaren hitzetan “fami-  
liak ezin du inoren eskuetan laga berak  
egin behar duena eta egin dezakeena”.

Funtsean, gurasoei prebentzio eta  
heziketa lanean laguntzeko sortu zen  
aldizkaria. Gurasoekin formakuntza  
egiteaz gain, aurrera pausuak emateko  
beharra ikusi zuten 2001ean eta horre-  
la “etxean” lasai irakurtzeko material  
erakargarria sortzea pentsatu zuten.  
“Gurasoen formakuntza saioretan emate-  
n genuen edukiez beteta eta etortzen  
ez ziren gurasoek ere eskura izan zezate-  
ten”.

Izan ere, Burgoaren hitzetan fami-  
liak ez du aurretik inon ikasten zer eta  
nola hezi, nolako printzipioetan oinar-  
rituta, zein hezkuntza eredu eskai-  
ni... Hainbat urtez Lea-Artibaiko man-  
komunitateak antolatuta gurasoen to-  
paketetan argi eta garbi ikusi zuten gu-  
rasoek tresna, baliabide eta aholku fal-  
ta dutela, besteak beste. “Hutsune bat  
zegoen, beraz, eta hutsune hori, nola-  
bait arau, laguntza edota irizpide bat-  
zuek emanaz, betetzen laguntzea da as-  
moa”.



Aldizkariaren ale berriena.



Haurrek eta familiek primeran pasatu zuten Gurasolandia parkean.

### GURASOTEGI

Duela pare bat urte abiatu zen *Gurasotegi* egitasmoa Pasai Antxoko (Gipuzkoa) talde txiki batek bultzatuta. Pixkanaka familia gehiago joan zaizkio gehitzen eta une honetan Lezo, Pasaia eta Oiartzungo 18 familia dabilta egitasmoaren inguruan. Etxean euskaraz egiten duten familiak; horixe baita egitasmoa hurbiltzeko ezinbesteko baldintzetako bat. Izan ere, *Gurasotegi*ko jarduera guztietan euskara besterik ez dute erabiltzen.

Seme-alaben hezkuntzaren gainean duten kezkek mugituta bildu dira familia horiek *Gurasotegi* ekimenaren ingurura. Beraiek ere hezitzaile diren moduan, zalantza ugari dituztelako. Zalantza horiek besteekin partekatu, eta denon artean aurrera egiteko bideak bilatzen saiatzen dira. Euren burua hobeto prestatzen.

Besteak beste, honako galderen inguruan hausnartzen dute: Nola lagundu seme-alabei beren sentimenduei aurre egiten? Zigorraz beste, zein bide

daude?; Nola sustatu haurren burujabetasuna?; Nola erabili goratzea?

Gurasoek gurasoentzat antolatutako ekimena da Gurasotegi. Eurak antolatzen dira eta eurak dira mugimendua aurrera daramatenak. Argi dutelako gurasoak direla euren seme-alaben hezitzaile nagusiak.

Egiteko horrek merezi du Gurasotegiko lagunaren hitzetan “gorespina eta antolaketa autonomoa”. Gurasoek euren burua jantzi eta prestatu behar dutela uste dute. Beti ere, beraien baitan oinarrituta, beraien ardurapean, beraien irizpideekin, beraien erritmoan.

Gurasotegiko kideentzat, “etxeko heziketak badu bere eremu propioa, beste hezkuntza eremuekin batera daithekeena, noski, baina ez ezinbestean eskola erakundearen menpe edo esaneko”. Azken batean, etxeko hezkuntzaren muina pertsonen arteko harremanen kalitatea zaintzea da. Beraz, gurasoek behar duten prestakuntza ez da teorikoa edo teknikoa izango; esperimentziala eta praktikoa baizik.

# Gurasoak eta eskola harremana

## Hiru sare nagusien iritzia

Zein iritzi dute Euskal Herriko hezkuntzako hiru sare nagusietako ordezkariak gai horri buruz? Nolako harremana izan behar dute beraien ustez ikastetxeek gurasoekin? Eta alderantziz? Hona hemen erantzun digutena.

**1. Eskolaren eta familien arteko harremana nola ikusten duzue?**

**2. Zein urrats ematen ari zarete bide horretan?**

**3. Zeintzuk dira zuen kezka eta erronka nagusiak?**

### IKASTOLEN ELKARTEA Koldo Tellitu

Guretzat eskola garaiko hezkuntzaren jardunbidea ikaslearentzat egokia izateko, eskolaren eta gurasoen lanak bateratua izan behar du, eta horren funtsa komunikazioaren bi norabideetan dago; bi aldetara egiten duen joan-etorrian. Gurasoaren parte-hartzeak, orokorrean, seme-alaben emaitzetan eragin positiboa izaten badu, hezkuntza bere osotasunean eskutik helduta eramateak askoz ere gehiago eragiten du. Eta ez bakarrik ikaslearen emaitzei dagokienez, baita bere gizarteratzean, motibazioan, jarreretan, trebetasunean eta portaeretan ere.

Horretaz gain, Ikastoletan titulartasuna, hots, jabegoa, gurasoek dute zuzenean. Beraz, proiektuaren jabeak gurasoak dira. Nolabait esateko, gurasoek Ikastoletan ez dute parte-hartu



Koldo Tellitu.

bakarrik egiten, erabaki egiten dute. Horrek eskubideak eta erantzukizunak argi izatea eta erabiltzea eskatzen du. Beraz, eskolaren eta familien arteko aipatutako harremanez gain, hezkuntza bere osotasunean eratu eta herri identitatearen transmisioa gauzatze-ko erantzukizunak gehitzen dira.

Gurasoen prestakuntzak ikastolen munduan izan behar duen lekua zein den zehazteko hausnarketa fasea egin eta gero, gure plan integrarean gurasoentzako prestakuntza-planak bultzatzeko asmoa jaso da, Ikastola bakoitzari material egokia eskainiz.

Prestakuntza horrek, ikastolen eremuan zentratuta, baterakoia, ikastolaren hezkuntza proiektuarekin bat datorrena, hezitzailea, eragingarria eta praktikoa izan behar du.

Baita ondorengo eduki-esparruak ere: batetik, behatokia, gurasoen beharren eta gogoen diagnostia egiteko; bestetik, ikastolen izaera; hirugarrik, seme-alaben adinaren arabera formazioa, etapaka antolatua; eta, azkenik, euskara eta aholkularitza. Tutore-


tzetan egiten denaz gain, aholkularitza birtuala.

Aipatu diren eduki-esparruak jorrazteko Ikastolen Elkarteak eta ikastola bakoitzak estrategia anitz erabil ditzakete, nagusienak; tutoretza eta gela bilerak, gela arduradunen bilerak, artezkaritzako kideen bilerak, hitzaldi irekiak eta ikastaroak.

Gure plan integrarean jasota dagoen erronka nagusia gurasoei prestakuntza egokia eskaintzeko material egokiak sortzea eta Ikastola guztietan zabaltzea da. Bestetik, kezka ez nioke deituko, gurasoen eta eskolaren arteko harremana mahai gainean aztergai dugun gaia da. Ikastolak partaidetza sozialean oinarrituriko erakundeak izanik, zelan zaindu familien/bazkideen partaidetza zuzena, prestakuntza, norberaren interesen adierazpena eta kudeaketarako eraginkortasuna ikastola bakoitzean.

### EHIGE, GURASOEN ELKARTEA Ana Eizagirre

Gurasoek irakaskuntza publikoan kalitate, aniztasuna, euskalduntzea, aukeraketa, proiektu berritzaileak... bilatu eta topatzen dituzte. Guraso gehienak ados daude eskolan egiten denarekin eta dauzkaten irakasleekin. Batzuetan familiek edo ikastetxeek ez dakite zer egin egoera berri baten aurrean. Esan dezakegu orduan sortzen direla "arazoak", eta ez dakigula, edo hobeto esanda, ahaztu egiten zaigula, hezkuntzan jasotzen eta ematen ikasten dela; denok daukagula zer esan eta zer ikasi. "Arazoak" sortzen direnean hobekuntzake egiteko, elkarriketa garatzeko, elkarlana indartzeko... aukera dugu. Horixe da, hain zuzen, Guraso Elkarte-



Mikel Ormazabal.

kuntza Elkarteko bi estamentuen partaidetza estua lortzen dugu: irakasleena eta familiaena. Gai desberdinak landuaz, irakasleen eta familien artean lotura estua lortzen da, jorratzen diren gaiak ikasleekiko harremana baitute. Partaidetza nahiko ona dugu: 52 ikastetxe eta 1500 irakasle eta guraso.

Ikastetxe bakoitzaren ekimenez, Foru Aldundiaren laguntzarekin, Adimen Emozionala landuz gurasoekiko hartu-eman handia lortzen ari gara. Esperientzi oso baikorra suertatzen ari da.

Aldi berean, beste zenbait ekintzatan ere ikastetxe eta familien arteko lotura estua izaten ari da: ikasleen jarraipena eginez. Jarraipen horretan tutoretzaren lana ezinbestekoa da. Kalitatezko hezkuntza lortu nahi bada, jarraipena heziketaren zutabe inportanteenetariko bat da; eta uste dut Kristau Eskolako ikastetxe guztiak duten Hezkuntza Proiektuaren nortasun agiria dela. Jarraipena eta familiarekiko elkarlan estua, guztiak elkarrekin helburu berdinei erantzuna baikorra eman nahian.

Etorkizunari begira, gai honetan erronka bakarra dugu: denon artean seme-alaben kalitatezko heziketaren alde lan egitea; eta hori koordinazio on bat izanez, elkarrizketa suntsitu gabe eta zubiak sortuaz.

en bidez zabaltzen dugun mezua: aukerak aprobetxatuz gero hobekuntza lortzen da.

Herrialde bakoitzean Guraso Elkarrean federazioetatik informazio, proiektu, aholkularitza eta abarren bitartez hezkuntza proiektu propioa, demokratiko eta parte hartzailea jorratzen ari gara. Gurasoek, ikastetxeek bezala, erreferente izan behar dute hezkuntza erakundeentzat. Zergatik? Besteren artean ikastetxeen eta haien ingurunearen ikuspegi global eta panoramiko daukatelako, sektorearen interes zuzenak ordezkatzen dituztelako, hezkuntza prozesu osoaren hobekuntza eta optimizaziorako erfortzua direlako eta zerbitzuak hobetzen laguntzen dutelako.

Hori dela eta federazioek urteak daramatzate ahaleginak batu, sinergiak baliatu eta eskola elkartean emaitzak errentagarri bihurtzea ahalbidetuko duen marko komun baten alde lanean. Zuzendaritza, irakasle eta abarrekin hausnartu, adostu eta borondateak batzeko lan egiten dugu XXI. mendeko gure eskolaren beharrei erantzunak emateko *Euskal Eskola Publikoa Gaur Bihar* ekimenaren bitartez.

Esan bezala, bide parte-hartzailea nahi dugu, demokrazia eta parte-har-

tzea batera doazelako, ardura eta inplikazioa lortzeko bide bakarra delako, eta hezkuntzan hartzen diren erabakiak gure seme-alaben eta gizartearen beharrei erantzunak emateko tresna garrantzitsua eta beharrezkoa direlako.

Une honetan gure interesa –BiHe eta Sarean zuzendaritzetako elkarteekin batera– Irakaskuntza Publikorako Plana prestatzea da hezkuntzako eragileen aurrean aurkezteko. Bertan hainbat gai zehazten dira: planifikazioa, antolakuntza, curriculumaren garapena, marko linguistikoa, potentziala, parte-hartzeko ahalmena, ekarpen soziala...

### KRITSAU ESKOLA Mikel Ormazabal

Kristau Eskolako ikastetxe guztiak betidanik Heziketa Proiektu bat izan dute. Proiektu horretan azaltzen dira ikastetxe horretan definitu eta adostu diren heziketa helburuak, jarduerak, Hezkuntza Elkarteko partaideak, horiek nolako partaidetza izango duten, zein motatako jarduerak izango dituzten...

Hori horrela izanik, Hezkuntza Elkarteko partaide garrantzitsuenetariko bat da familia eta bi maila desberdinetan hartuko du parte: alde batetik, eragile gisa, eta bestetik, formazio-hartzaile gisa.

Batean zein bestean, eskolaren eta familiaren arteko harremana ona da eta ezinbestekoa Heziketa Proiektuaren etorkizunerako.

Bide horretatik jarraitu behar dugula jakinik, zenbait urrats ematen ari gara bai erakunde bezala eta baita ikastetxe bakoitzaren iniziatibaz ere.

Erakunde bezala, proiektu pilotu bat aurrera eramaten ari gara: SIEP-FE-AC izeneko proiektua. Bertan, Hez-



Ana Eizagirre.

# sonia compostela

## *ELKARRIZKETA*

Psikomotrizitateko aholkularia eta ASEFOPeko irakasle italiarra

“Bi guneak hartu behar dira aintzat, bai gela arrunta eta bai psikomotrizitate gela. Garrantzia handia du proiektu hezitzaile osoak, ez psikomotrizitate gelak soilik”





W  
ANIVERSARIO



20. U...  
PROGR...

**UZTAILA / JUNIO**  
• 8 / 18:30h.  
CANTACUEN  
• 9 / 18:30h.  
CONCIERTO

**IRAILA / SEPTIEMBRE**  
• 15-16-17 / 17  
SESIONES DE

**AZAROA / NOVIEMBRE**  
• 19 / 16:00h.  
"ARAKNE: RED  
• 28 / 19:30h.  
INTERVENCIÓN A  
EL EQUIPO DE AG

**ABENDUA / DICIEMBRE**  
• 1  
ACTO SOCIAL DEL X  
• 1 AL 21  
ACTIVIDADES "PASO  
A LA MODERNA AVE  
• DEL 5 AL 10 / 11:30h.  
JORNADAS DE PUER  
• 10 / 19:30h.  
ACTO DE CLAUSURA:  
IRADIER, A CARGO DE

Palacio de Congresos Europa, Tel.: 945

# sonia compostela

E

“ Haurrak bere desioak eta beharrak zein diren azalduz gidatzen du heldua. Zer nahi duen azaltzen dio, eta, orduan, helduak erantzun bat eman behar dio. Haurra bideratu behar du, baina ez helduaren irizpideetatik abiatuta, haurrak esan dion horretatik abiatuta baizik. Joan-etorriko harremana da, baina haurrarengandik hasten da.

”

Azaroaren 13, 14 eta 15ean Gasteizko Europa jauregian izan ziren IX. psikomotrizitate praktikari buruzko jardunaldiak.

"0-3 urteko haurraren biografiaren eraikuntza eta 3-8 urtekoen hezkuntzaren hasiera eta oinarriak" izenburua zuten aurtengo jardunaldiek.

Jardunaldi haien bidez, Psikomotrizitate Praktikan hausnartzeko tartea eskaini zuen UNED-Bergarako Psikomotrizitate Praktikako Eskolak. Psikomotrizitateari lotuta daudenentzat eta psikomotrizitatea zer den jakin nahi zuten guztientzat topaleku izan ziren jardunaldiak.

Bertara, Sonia Compostela etorri zen. Sonia, Asefop-eko psikomotrizitateko kidea eta trebatzailea da, Italiako Bassano di Grappa hiriko ARFApeko kidea.



## Duzun esperientzian oinarrituta, zein da zuretzat psikomotrizitate lanaren ideia nagusia?

Hauxe litzateke ideia nagusia: egin behar den hezkuntza lana haurren aniztasunera egokitu ahal izateko zein baliabide sortu behar diren jakitea.

Ikuspegi horretatik abiatzen da Bernard Aucouturierren psikomotrizitate praktika. Helburu nagusia baliabideak sortzen saiatzea da; bai egiten den proiektu hezitailerako, bai proiektu horretarako prestatzen den lekua lortzeko. Nola sortu proiektua eta praktika gauzatzen diren lekuak batzeko tresnak?

Haurrek dituzten ahultasunak, zailtasunak... gainditzeko, ezin da pentsatu astean behin psikomotrizitate praktika bat egitea nahikoa denik.

Helburua psikomotrizitate proiektu hori eskolan garatzeko aukera ematea da, haur horiei muturreko une batzuetatik –mugimenduak, afektuen leherketa–, beste une lasaiago batzuetara –pentsamenduaren mementuetara– iritsi ahal izateko aukera ematea, hain zuzen. Eta hori guztia egiteko, espazio egokia behar da eskola barruan.

Proiektuak hezitzailea izan behar du. Kontuan hartu behar du, gela arruntetik hasi eta psikomotrizitate gelara, haurraren nortasuna eta garapena zein elementutan oinarritzen den. Bi guneak hartu behar dira aintzat, bai gela arrunta eta bai psikomotrizitate gela. Garrantzia handia du proiektu hezitzaile osoak, ez psikomotrizitate gelak soilik.

Garrantzia handia du esparru hori sortzeak. Pedagogia orokorra hartuko du bere baitan, eta ezinbestekoa da eskolan dauden espazio guztiak behar bezala antolatzea.

## Zergatik da hain garrantzitsua espazioa antolatzea?

Espazioa antolatzeak haurraren gentsatzea esan nahi du. Haurraren eta haren garapenerako ezaugarrietan. Eta antolatutako espazio hori erreferentzia bilakatzen da haurrentzat. Zergatik? Antolatzen den espazio horretan haurrak inplizituki aurkitzen duelako helduak proposatzen diona. Antolakuntza horren bidez, proposamen bat egiten zaio haurri, eta haurrak jaso egiten du.

Helduak ere rol berri bat betetzen du espazio horretan. Eta beste begirada bat beharko du haurri begiratzeko eta haurrak zer esaten dion ulertzeko. Haurrak seinaleak bidaliko dizkio, ondo dagoela edo gaizki dagoela esango dioten seinaleak, eta helduak jaso egin beharko ditu horiek guztiak, horien arabera, etengabe egokitzen joateko.

Helduak zuzendari artistikoaren rola beteko luke, azken batean. Kanpoan dago, baina, era berean, barruan ere bai. Helduak dauka egoera horren egitura, hark eusten dio egiturari. Eta, metaforikoki, esan dezakegu giharrek edo muskuluek bat egiten dutela egitura edo hezurdura horrekin. Haurrak, bere ekintzen bitartez, eskeleto hori osatzen du. Helduak hezurdura hori eskaintzen dio, eta horren gainean eraikitzen du gorputza haurrak.

## Eta komeni da psikomotrizitateko irakaslea eta ikasgelakoa bera izatea?

Psikomotrizitate praktikan trebatutako irakasle batek bere taldearekin gela arruntean egiten duen lana psikomotrizitate gelan ere egin dezake. Baina hezitzaileak prestakuntza berezia izatea eskatzen du horrek. Edo, gutxienez, uste okerrak saihesteko jarrera egokia izatea. Izan ere, irakasleak, hezi ez ezik, irakatsi ere egin behar dio haurri. Eta irakasteak haurraren gaitasunen inguruan ebaluazioa egitea eskatzen du. Adiegon behar du, eta haurra nola ikasten ari den begiratu, nola garatzen ari den ikusi. Eta psikomotrizitate getetan ez dago gela arruntean izaten den gaita-



sunen ebaluazio hori. Psikomotrizitate saioetan ez da irakasten, haurra ikasteko edo jasotzeko prestatzen da.

Hezitzailea aldi berean irakaslea eta psikomotrizista baldin bada, haren lana haurrei espazioa, materiala, denbora... ematea izango litzateke, haurrek, lasaitasunez, ibilbide bat egin ahal izan dezaten, espazio batera edo bestera (gela arruntera edo psikomotrizitatekora), lan batera edo bestera lasai egoki daitezen. Hezitzaileak sortu behar du esparru hori, eta kontuan hartu behar du haurrak beharrezkoa duela koherentzia, batean eta bestean lasai egon ahal izateko, nahiz eta batetik bestera ibili.

## Ko-heziketaz hitz egin duzu. Zer da zuretzat ko-heziketa kontzeptua?

Kontzeptu bat baino gehiago, ulertzeko modu bat da ko-heziketa: kontuan hartu behar da haurra, lehenengo egunetik, subjektu aktiboa dela.

Ikuspegi horretatik, ko-heziketa edo kooperazio horren barnean, haurrak bere premiak, bere beharrak, bere desioak... agertzen ditu. Beste aldean

heldua dago, haurraren emozio horiek sentsibilitate berezi batekin jasotzen dituen heldua. Haurra bere gorputzaren bidez kontatzen ari den istorio horri adi jarraitu behar dio helduak.

Ko-heziketa horretan bada oinarritzko ezaugarri bat: haurrak bere desioak eta beharrak zein diren azalduz gidatzen du heldua. Zer nahi duen azaltzen dio, eta, orduan, helduak erantzun bat eman behar dio. Haurra bideratu behar du, baina ez helduaren irizpideetatik abiatuta, haurrak esan dion horretatik abiatuta baizik. Haurrak bideratu behar du zure lana, eta aurrera jarrai dezan erantzunak ematen saiatuko zara zu. Joan-etorriko harremana da, baina haurrarendik hasten da.

Egoera elkarreragile hori azaltzen saiatzen ari naiz. Esparru psikodinamiko bat dago horren baitan, eta garrantzitsuena haurra, subjektu den neurrian, beste subjektu batekin elkarreragiten aritzea da. Zu, subjektu zaren neurrian, eraikitzen joango zara, beste subjektu batekin elkarreraginean aritu zarelako. Egoera dinamiko bat da, eta subjektua osatu egiten da, beste subjektu batengan ere eragiten duelako,

# sonia compostela



eta horrek ere erantzun egiten diolako. Elkarren arteko dinamika hori da garrantzitsua.

## **Oso haur txikiekin ere ari zarete lanean; konta al dezakezu nola ari den garatzen?**

Nik hezitzaileen lana koordinatzen dut, ez dut zuzenean haurrekin lan egiten. Haur txikiei eskaini behar zaienez hausnarketa egiten dut hezitzaileekin. Psikomotrizitate praktikari buruz dugun ikuspegia haur txikiekin egiten den lan horretara eramatea da asmoa, haurrak duen psikomotrizitate gaitasunari egokitzeko. Hauxe litzateke galdera: nola egokitu haurren psikomotritziterara, guk ditugun printzipioetatik abiatuta? Beti ere, haur txikiaren psikomotrizitatea errespetatzeko proiektu orokor baten baitan.

## **Orain artekoak txikitxoekin aritzeko balio al du? Salto handia dago 0-2 urte arteko haurren eta handiagoen artean.**

Berez, haur txikiekin (0-1 urte) erabiltzen den gela horrek ere erantzun bat eman behar die haurren mugimenduei, haren nahiei eta beharrei.

Gela horrek haur txikiak etengabe seguru sentitzeko duen beharri ere erantzun behar dio. Haur txikiak denbora gutxi egon daitezke bakarrik. Ezin dute luzaroan egon heldu bat alboan izan gabe (ama gabe, esaterako), eta, gabezia horri erantzuteko, baliabide eskasak dituzte. Azken batean, segurtasun afektiboa ematen dien hori ondoran izan gabe egoteko baliabide gutxi dituzte.

Beraz, uneoro baliabideak eman behar dizkiogu haurri, gabezia horren aurrean seguru sentitzeko aukera

izan dezan. Hutsunea nola beteko dugun pentsatu behar dugu.

Lehen aipatutako hutsune horiek asetzeko, eskura ditugun materialen bidez zein egoera sortzen ditugun izan behar dugu gogoan beti. Haurrak bere gorputza babestuta sumatu behar du, amarekin egongo balitz bezala sentitu behar du. Materialen eta jarrerren bidez sentipen hori berregin behar dugu guk.

Egoera sinbolikoa da, baina erabiltzen dituen elementuak errealak dira. Hau da, benetako elementuak erabiliko ditugu (materialak) amarekin egotearen egoera sinboliko hori birsortzeko. Objektu txikiak, erabilgarriak, maneigarriak eta bestelako materialak jarriko ditugu haurren eskura, beti ere, amaren presentzia hori sortzeko helburuarekin.

Bestalde, oso oinarrizkoa da haurri espazioan eragiten uztea. Aske mugitu dadila, aske egin ditzala gauzak. Eta horixe egin behar da haur txikienekin ere, aske utzi behar zaie. Zer esan nahi du horrek? Beraien erritmoa errespetatu behar dela, eta denbora eman behar zaiela. Zertarako? Lehenik eta behin, egoera berri bat sor dezaten eta bizi dezaten. Eta ondoren, egoera berri hori errepikatzen denbora izan dezaten. Haurri denbora eman behar zaio fase horietatik guztietatik pasatzeko: zerbait berria aurkitu, errepikatu eta, ondoren, osatu.

## **Horixe izango da autonomiaren oinarria?**

Bai, esan dezakegu horixe dela oinarria. Hor hasten da autonomia erabiltzen, orduan hasten da autonomia nola erabili behar duen ikasten. Izan ere, aukera ematen zaio autonomia hori erabiltzen hasteko.

Autonomia edukiontzi edo esparru erraldoi bat da, autonomia txikiz osatuta dagoen sarea. Garapen bat gertatzen da: pixkanaka, autonomia txikiak lortzen joango da haurra, apurka-apurka esparru handi hori osatu arte. Lehen esan bezala, oso txikitatik autonomiaz bizitzen hasteko aukera baldin badute, orduantxe hasiko dira gerora izango

**“Oso oinarrizkoa da haurri espazioan eragiten uztea. Aske mugitu dadila, aske egin ditzala gauzak. Eta horixe egin behar da haur txikienekin ere, aske utzi behar zaie. Zer esan nahi du horrek? Beraien erritmoa errespetatu behar dela, eta denbora eman behar zaiela. Zertarako? Lehenik eta behin, egoera berri bat sor dezaten eta bizi dezaten.**

**”**

duten autonomia handi hori eraikitzen.

Autonomia lortzeko prozesua ez da sekula bukatzen, bizitza osora luzatzen da. Ezin dugu esan zazpi edo zortzi urterekin amaitzen denik, inondik inora ere. Helduak ere autonomia hori osatzen jarraitu behar du.

Ikuspegi horrek dio guk haur txikiarengan sinisten dugula. Uste dugu haurra, bere haur izaeraren baitan, gai dela irtenbideak sortzeko eta bilatzeko. Hau da, badaki haurra dela, badaki zein egoeratan dagoen, zein traba dituen, eta gai da horiei aurre egiteko. Haurarengan sinetsi behar dugu, psikomotrizitatea ikuspegi horretatik lantzeko.

Baina haurrak irtenbide horiek landu ditzan, guk espazio edo inguru bat ematen diogu, irtenbideak aurkitzeko modua emango dion gune bat. Espazio horrek ez du zurruna izan behar. Haurrek adierazten digutenaren arabera moldatu beharko dugu guk. Umearen ezaugarriak, premiak, desioak... Guztiak hartu behar ditugu kontuan. Beraz, esparru hori behin eta berriro moldatu beharko da.

Dena den, espazio horrek zenbait elementu egonkor ere izan behar ditu.

Hau da, aldaketarik gabe irauten duten materialak eta lekuak, esaterako. Elementu egonkor horiek emango diote haurrari zenbait esperientzia buruz ikasteko aukera. Hots, umeak gune zehatz batean, objektu zehatz batekin, bizipen zehatz bat izan badu, eta, berriro ere, gune horrekin eta objektu horrekin topo egiteko aukera baldin badu, errepikapenari esker material horrekin, espazio horretan, lehenago izandako esperientzia gogora dezake. Eta ondoren, garatu.

Haur txikiarentzat garrantzi handia du sinpletasunak, materialei eta espazioari dagokienez. Ez dute oso konplexuak izan behar: altzari gutxi behar dira, eta, haurraren garapenaren arabera, oso ondo aukeratutako objektuak. Adibidez, soinua ateratzen duten jostailu mekaniko horietakoak ahalik eta gutxien izatea komeni da. Izan ere, haurrak eskuekin, ahoarekin, begiradarekin... aztertu ditzakeen objektuak behar ditu. Objektuak maneiatu eta bizi egin behar ditu haurrak.

Objektu hori, behar bada, utzi egin-go du haurrak. Baina garrantzitsua da haurrak objektu hori berriro topatzeko



aukera izatea. Garrantzitsua da, beraz, zenbait objektu modu egonkorrean mantentzea. Haurrak objektuaren azterketa egiten du, albo batera uzten du, baina, akaso, berriro objektua hartu, eta azterketarekin jarraituko du. Haurrak esperimendatzen jarrai dezake. Baina zer gertatzen da berriro hara doanean objektu hori han ez badago? Ezin du esperimendazioarekin jarraitu. Eta haur txikiak maiz egiten dute hori, objektu bat hartu eta utzi. Ematen du nazkatu direla, baina ez, berriro itzuliko dira azterketa horretan sakontzera.

### **Zein objektu izan daitezke oinarritzkoenak?**

Niretzat, lehenengo objektua, oinarritzkoena, lurra da. Lur horrek ez du hotza izan behar, zenbat eta goxoago izan, hobe: egurra, esaterako. Azken batean, haurrari lurlean goxo egoteko aukera eman behar zaio.

Izan ere, lehenik, horizontaltasuna esperimendatu behar du haurrak. Oinarri sendo eta seguruan egon behar du. Haurrari gorputz jarrera desberdinak bilatzeko aukera eskaini behar dio, eta, oinarri on bat ez badu, ezin izango du



# sonia compostela

E



“  
**Guk haur txikiarengan sinisten dugu. Uste dugu haurra, bere haur izaeraren baitan, gai dela irtenbideak sortzeko eta bilatzeko. Hau da, badaki haurra dela, badaki zein egoeratan dagoen, zein traba dituen, eta gai da horiei aurre egiteko. Haurraren sinetsi behar dugu, psikomotrizitatea ikuspegi horretatik lantzeko.**”

horrelakorik egin. Lurrak emango dio espazioan mugitzen hasteko aukera.

Hortik abiatuta, haurrak, pixkana, zutik egon ahal izateko gaitasuna lortzen du, lehendabizi zutitu eta, ondoren, gora egitekoa. Horretarako, ordea, oinarri seguru hori –lurra– ezagutu behar du lehendabizi. Ondoren, haurrak bere gorputzarekin ikasiko du, pixkanaka, bertikaltasuna eta altuera lortzen.

Espazioaren antolaketaz ari garenez, lehendabizi gune bat beharko dugu. Eta lurra izango da gune hori. Ondoren, beste alde batean, askotariko altuerak beharko ditugu. Hau da, haurrek altuera desberdinetan bizipenak izateko aukera ematen duten elementuak behar dira. Haurra, pixkanaka, arrastaka joatetik altuera gune horietara igotzen hasiko da. Horri esker, aldapak edo askotariko altuerak dituen gune batekin topo egitean, haurrak gorputz jarrera berriak bilatzeko ahalegina egingo du, espazio berri horretara moldatu ahal izateko.

Desorekak biziko ditu, baina desoreka onak direla esan dezakegu. Denbora hartuko du galtzen duen oreka berreskuratzeko. Desoreka/oreka jolas hori landuko du. Haur txikiak mugimendu naturala lortuko du espazio horretan. Hain zuzen ere, esperientzia horiek segurtasun giroan bizi dituelako izango du mugimendu natural hori sortzeko aukera.

Mugimendu natural horretan, erritmo bat markatuko dute, mugitzeko eta

geldi egoteko uneak izango ditu haurrak. Azken batean, mugimendu erritmiko horrek (gelditu/mugitu) bizitzako beste mugimenduak islatzen ditu: luzatzea eta tolestea. Aukera horri esker, bizitzaren oinarrizko mugimenduak azaltzen ari da haurra.

**Normalean, sistema bat erabiltzen da 3, 4, 5... urteko haurrekin, pareta egin eta puskatzearena, esaterako. Haur txikiekin ba al dago horrelako metodologiarik?**

Bi hilabetetik bi urtera, haurren gela psikomotrizitate espazio bat da, nahiz eta psikomotrizitate gelarik ez izan. Ondoren, bi urtetik aurrera, psikomotrizitate gelara joateko aukera izango dute. Haurrak zutik egoteko gutxieneko egonkortasun bat lortu duenean, posible izango da psikomotrizitate saio bat egitea. Baina, segurtasun apur bat duten haurrak izan behar dute, larritasun handiegirik izango ez duten umeak. Seguru sentitzen dira zutik, ez dute erortzeko beldurrik; eta, beraz, haur horiek psikomotrizitate gela batera joateko prest daude.

Zer gertatzen da psikomotrizitate saioan? Hasieran mugimendu asko dagoela, eta haurrek elkarri bultza egiten diotela. Beraz, haur batek aipatutako oinarrizko segurtasun hori lortu ez bado, itolarria senti dezake. Horregatik, lehen bi urteetan, prozesu bat egin beharko du, ondoren, psikomotrizitate saio batean dauden mugimendu handi

horiek onartu ahal izateko.

Psikomotrizitate saioan haurrek gai izan behar dute beren gorputz jarrerak beldurrik gabe moldatzeko. Hasieran, bi urteko haurrekin psikomotrizitate gelakoak oso saio orokorrak izaten dira. Gero, taldearen garapenaren arabera, saioari egitura ematen joango gara: espazioa, denbora, faseak... Bi espazioak, adierazpen motorren espazioa eta adierazpen plastikoarena; eta hiru denborak, adierazpen motorrena, ipuinaren unea eta adierazpen plastikoaren unea. Baina denbora eta espazio horietara progresiboki ailegatu behar da bi urteko haurrekin. Eta hiru urtetik aurrera osatuko da psikomotrizitate saio oso hori.

### **Eta musikak nolako rola bete behar du?**

Txikienekin, 0-2 urteko haurrekin, hain zuzen, irakasleak noiz edo noiz erabiliko ditu abestitxoak edo mugimenduarekin jolas egiteko balio duten doinuak. Garrantzi handia du haurtxiki horiekin abesten den musika horrek erritmo argia izateak: onomatopeiak, errepikapenak, lo kantak... Batez ere, bitariko erritmo sinplea dutenak, haurrentzat errazak direnak, haurraren bihotzaren erritmoarekin bat datoze-

nak, hain zuzen ere. Gainera, haurrek berehala ikasten dituzte abestitxo horiek, ia-ia berezkoak dira.

### **Psikomotrizitate saio oso batek zein osagarri izango lituzke?**

Psikomotrizitate saio osoa ezartze-ko, garrantzitsua da oso haurren gaitasuna kontuan hartzea. Bi urtekoen gelaren, azken hiruhilabeteen, edo haurrak 28 hilabete dituenen, has gaitezke psikomotrizitate gela bisitatzen. Ordu-rako plastikotasun badutelako. Gai dira gorputza moldatzeko, eta prest daude gelara moldatzeko.

Pixkanaka, denbora egokitzen joango gara. Oso txikiak direnean denbora luzea pasatuko dute, soilik mugimenduaren plazeraren inguruan. Baina, pixkanaka, saio oso hori egokitzen joango gara. Haurrak ez dira denbora osoan gauza berean arituko, pixkanaka, gero eta gehiago eskatuko zaio, baina haurra gai izango da eskakizun horietara moldatzeko.

Lehenik eta behin, gela nola aurkeztuko duen pentsatu behar du irakasleak. Adinaren arabera, horma edo pareta erabiliko da. Izan daiteke horma edo kuxinez egindako mendi bat, kuxinez betetako leku zabal bat... Azken batean, haurrak mugimenduaren pla-

zera ezagutzen hasteko moduko zer-bait. Hasieran oreka, desoreka, erorketak, bultzadak, birak, botatzeak eta antzekoak izango dira. Batez ere plazer sensorio-motor hori bizitzen saiatuko dira. Eta gero, pixkanaka, joko sinboliko txiki batzuk azalduko dira. Horietan, haurrek familian izandako esperientziak berregingo dituzte; panpinak zaindu, jantzi, jaten eman... Apur bat familian bizi dutena azalduko dute.

Ondoren ipuinaren tartea edo etorriko litzateke, ez oso luzea. Hasiera eta bukaera dituen istorio bat. Ipuinaren ostean, egurrarekin eraikuntzak egitera eta, bereziki, plastilina landu eta irudiak modelatzera igaro daitezke.

### **Eta goizegi al da margoentzat?**

Nik garapen bat proposatuko nuke. Hasieran, eskua gauza orokorragoa da, eta ezagutu behar dituzten bestelako sentipenak ere bai; zuloak egin, ongi oratu... Marrazkiak egiteak fintasun handiagoa eskatzen du. Horregatik, us-te dut hasieran plastilina oso egokia izan daitekeela, eskuen globaltasun hori ezagutzeko eta bizitzeko.

### **Psikomotrizitate saio horretan, dena den, badaude arau batzuk. Zeintzuk dira zuretzat ezinbestekoak?**

Oso erraza da. Nik denbora tarte laburra eta hitz gutxi erabiltzen ditut. Lehenik eta behin, honako hau esaten diet haurrei: "Hau zuen jolasetarako leku bat da, elkarrekin jolas egiteko espazio bat, baina hemen ezin diogu elkarri minik eman, zuen burua ere zaindu behar duzue, eta ez dituzue suntsitu behar besteen eraikuntzak".

Baina, hori esan arren, nik badakit horrelakoak gertatuko direla. Batzuek min hartuko dute, elkarren eraikuntzak suntsituko dituzte... Hori izango litzateke esparru egokia, baina gatazkak izango dira, ziur. Psikomotrizitate gelan egoteko baldintzak zein diren jakiteko, mezu hori helarazi behar zaie haurrei. Horrek ez du esan nahi gero gatazkarik izango ez denik, baina, gutxienez, badakite zein diren baldintzak.



## Zu zeu izan Bazen Behin Clown

**Haur eta gaztetxoek ikastetxeetan jasaten dituzten erasoei buruzko antzezlanak taularitzen ari da une honetan Bazen Behin Clown taldea. Duela bost urte, 2004an, hasi zuten ibilbide bateratua antzerkiko, hezkuntzako eta psikologiako hainbat kidek. Helburu zehatz baten inguruan bildu ziren guztiak: clown filosofia berezikoak dituen umoretik eta inozentziatik abiatuta, mezu sozialez betetako antzezlanak jorratzea. Eta horretan ari dira.**

Flipo (Peio Arnaez), Bruno (Joseba Roldan), Paladita (Irene Alkiza) eta Josefina (Mari Jose Landaburu) ikaskideak eta lagunak dira. Jolas orduan elkarrekin ibiltzea atsegin dute, baina oso desberdinak dira eta liskarrak sortzen dira beraien artean jolastokira irteten diren bakoitzean. Zu zeu izan antzezlaneko protagonistak dira laurak. Horixe da, une honetan, Bazen Behin Clown taldeak eskuartearen duen proiektua. Bullying-ari buruz hitz egiten du, ikastetxe bateko jolastokian gertatzen diren hainbat pasadizoren bitartez. Lau ikasle horien jarrerak ikusten dira taula gainean, baita beraien arteko harremana nolakoa den ere.

Mehatxuak egitea, norbait kikiltzen saiatzea edota fisikoki, emozionalki zein intelektualki eraso egitea ez dira ja-



Irati Azkue, *atlasa.net* egitasmoaren arduraduna.

rerra mesedegarriak. Albokoa menperatu eta gu gaintik jartzea dute helburu; zertarako, baina? Ikuskizun horrekin elkarrekiko errespetuak duen garrantzia azpimarratu nahi du Bazen Behin Clown taldeak. Mezu argi bat helarazi nahi digu: gure artean desberdinak izan arren, desberdintasun horiek errespetatuz, askoz hobeto joango zaigu bizitzan eta harremanetan.

### Besteen lekuan jartzen ikasteko

Eta ba al dago hori ikasteko modu hoberik antzerkira joatea baino? Bazen Behin Clown taldeko kideen ustez, antzerkiak horretarako aukera paregabea eskaintzen du. “Antzerkia, heziketan, ikasleen komunikatzeko ahalmena –igorle zein hartzaile moduan– gartzeko teknika pedagogikoen ataletako bat da. Halaber, hezkuntzaren alderdi kognitiboak zein afektiboak, psikomotorrak, artistikoak eta sozialak uztartzen ditu. Eta, gainera, curriculumeko edozein gai lantzeko parada eskaintzen du”.

Bereziki gizakiei dagozkien gaiak eta zeharkako gaiak lantzeko erabiltzen da antzerkia. Izan ere, Bazen Behin Clown taldeko kideen ustez, “beste pertsona bat izateko edo beste pertsona baten lekuan jartzeko aukera paregabea eskaintzen du”. Zuzeneko bizipenaren bitartez, beste ikuspegi bat, beste rol bat, beste pertsonaia bat lantzeko aukera ezin hobea da beraien ztat.

Horregatik, eta antzerkiak baliabide pedagogiko gisa eskaintzen dituen aukera guztiak kontuan hartuta, garrantzitsua iruditzen zaie antzerkira joatea, batik bat, ekintza ludikoa dela gogorarazteko; gozatzeko, imajinazioari hegan egiten uzteko eta sentitzeko, besteak beste. Euren antzezlanak ikasteko ez ezik, ongi pasatzeko ere balio duela diote.

### Unitate didaktikoa

Ikasi eta ondo pasatu, beraz. Antzerkira joan, ordubeteko emanaldia ikusi eta eskolara itzuli. Baina nahikoa



al da hori? Bazen Behin Clown taldeko kideek eskola jazarpenaren gaia ikasgelan lantzeko aukera baliatu nahi dute, eta horretarako prestatu dute Zu zeu izan lanaren unitate didaktikoa. “Hasierako ideia Kataluniatik hartu genuen”, azaldu du Saenz de Ojerrek. Haren hitzetan gauza jakina da hezkuntzan eta beste arlo batzuetan han apur bat aurrerago doazela. “Hango talde batek baino gehiagok prestatzen ditu antzezlanak eskoletan zeharkako gaiak lantzeko. Gure taldean pedagogia, psikologia eta irakasle ikasketak egindako pertsonak gaudenez, egindako antzezlanen inguruko unitate didaktikoak sortzea bururatu zitzaigun”. Lehenik eta behin, aurretik taularatutako lanen unitate didaktikoak prestatu zituzten. Zu zeu izan lanaren kasuan, berriz, hasieratik ikusi zuten unitate didaktiko bat prestatzeko beharra. “Haur eta nerabeentzat bereziki sortzen dugun lehen lana da, eta eskoletan lantzeko oso aproposa iruditu zitzaigun. Hortaz, unitate didaktiko bat eskaintzea ere garrantzitsua zela pentsatu genuen”. Unitate didaktikoa Mentxu Arrieta, Itziar Saenz de Ojer eta Cristina Nogalesek egin dute, eta [www.bazenbehin-clown.com](http://www.bazenbehin-clown.com) webgunean eskura daiteke.

### Taldearen sorrera

Duela bost urte inguru, clown ikastaro baten ostean sortu zen taldea. Peio Arnaez taldeko zuzendariak eman zuen ikastaro hura Donostiako Lugaritz kultur etxean. Ikastaldia amaitu egin zen, baina zenbait ikaslek clown munduan murgiltzen jarraitu nahi izan zuten. Eta Itziar Saenz de Ojer taldekideetako batek azaldu digunez, halaxe jakinarazi zioten Peio Arnaez irakasleari. “Uste dut taldea osatzeko ideia ikastaro amaierako bazkarian jaio zela”, gogoratu du. “Uda pasatzen utzi eta hurrengo ikasturtean lokal batean elkartzen hasi ginen”. Eta ikasturte bukaerarako,



2005eko maiatzerako, lehendabiziko lana estreinatu zuten: *Eta zergatik ez?* Ordutik aurrera ia etenik gabe jarraitu dute lanean eta hurrengo lanak sortu dituzte: *Txakurez kutua* (2007), *Orain goan bai* (2008) eta *Zu zeu izan* (2009). Dena den, izan dira zenbait baja, eta jende berria gehitu zaio taldeari. “Guztiek, taldeari eskainitako denboraz gain, beste lan edo zereginen bat dute, eta inplikazioak, beraz, ezin du beti erabatekoa izan”, azaldu du. Hori dela eta, antzezlan bakoitzean jende batek edo bestek hartu du parte. Memento honetan, taldekideak honako hauek dira, nahiz eta denak ez egon modu aktiboranean lanean: Peio Arnaez, Mentxu Arrieta, Joseba Roldan, Mari Jose Landaburu, Irene Alkiza, Cristina Nogales, Itziar Larinaga, Itziar Saenz de Ojer eta Xabier Zupiria.

### Behar teknikoak

Atsegin bazaizu eta zure ikastetxera eramanez nahi baduzu ideia, hona hemen kontuan hartu beharreko zenbait elementu:

- Antzezlanak 6 urtetik gorako haurrentzat da aproposa.
- Agertokiak 6 metroko zabalera eta 5 metroko luzera eduki behar ditu.
- Musika ipintzeko gailua beharrezkoa da (CD).
- Lanak 60 minutuko iraupena du.
- Harremanak: 657728540 / 649497393 edo [bazenbehinclown@gmail.com](mailto:bazenbehinclown@gmail.com)



## Eskola Txikiak Dagokienaren eske



Eskola Txikietan gabiltzan irakasle, guraso eta ikasleak aspaldian konturatuta gaude altxor bat dugula esku artean. Eskola Txikietako berezko ezaugarrietan erreparatzen badugu, hala nola, adin aniztasuna geletan, eskola herrian txertatua izatea, naturarekin harreman zuzena, euskalduna... konturatuko gara ezaugarri horiek denak abantaila handia suposatzen dutela haurren hezkuntza garapenerako. Esate baterako, ikaskuntza kooperatiboak edo elkarbizitza planak era naturalean ezarri daitezke gure eskoletan. Eta altxor hori mimoz zaintzen dugu irakasleok. Horregatik, badira urte batzuk Eskola Txikien arteko elkarlana bideratuta daukaguna: 87-88 ikasturtean gure eskoletako duintasuna eta abantaila ezagutaraziz hasi eta gaur egun arte elkarlanean jarraitzen dugu, momentuko irakaskuntzaren beharrei erantzunez noski, etengabeko formazioa, koordinazioa, ikasleen arteko harremana eta eragile arteko komunikazioa bideratuz, Eskola Txikietako ikasleei kalitatezko hezkuntza ziurtatuz.

Eta altxor hori mimoz zaintzen dugu, baita ere, gurasook. Horregatik, 1993. urtetik aurrera Eskola Txikietako Gurasoen koordinadora sortu zenetik, lau helburu nagusien inguruan jarraitzen dugu lanean:

Eskola publiko euskalduna herrietan mantentzea. Herriaren nortasunean eta kulturen oinarritutako heziketa bultzatzea. Herri txikietako eskolen beharrak azaldu eta eskakizunak bidera-

tzea. Herri txikien arteko harremanak bultzatzea.

Helburu horiek denak era egokian lortzearen Eskola Txikietako irakasle eta gurasoak eskutik helduta goaz bidean barrena. Baina honetarako guztietarako, erakunde publikoekin lankidetzan aritzea ezinbestekoa ikusten dugu. Udalen parte hartzea, esate baterako, derrigorrezkoa den bezala, Jaurilaritzarena ere nahitanahiezkoa da. 2003. urtean *Eskola Txikietako Batzorde Nagusia* eratu zuen Jaurilaritzak, eta bertan erakunde desberdinak parte hartzen zuten, hala nola, Hezkuntza saileko ordezkariak, irakasle ordezkariak, guraso ordezkariak, nekazal saileko ordezkariak, udalek... Horrek aurrerapen izugarria ekarri zuen Eskola Txikientzat eta hainbat hobekuntza lortzeko aukera izan genuen: eskolak egonkortzeko zerbitzu eginkizunak, jangelak... Gaur egun batzorde hori indarrak galduta dago, nahiz eta hainbat bilera egin diren Jaurilaritzarekin. Berrito ere gaia bideratzeko eta kezkek eta beharrak dagokion lekuan aztertzeko batzordea berregituratzea eskatzen dugu, eta bertan, Eskola Txikien status berezia onartzea eta arautegi propioa ezartzea. Azken urteetan izandako beste lorpen bat Eskola maparen dekretu berria izan da, bertan lehenbiziko aldiz Eskola Txikiak bereziki aipatzen dira, eta guk bere horretan ezartzea eskatzen dugu, ilusioz eta gogoz ari diren eskolei lanean jarraitzeko aukera ematea, baliabideak eskainiz eta ez murriztuz. Gu-

retzako altxorra dena administrazioarentzat ere izan dadila. Merezi duena baloratu dezala eta krisi ekonomikoari irtenbide egokiak bilatu ditzala eskolak kaltetu gabe. Ezin utzi aipatu gabe giza garapenerako norberaren herrirako atxikimenduak duen garrantzia. Atxikimendua familian hasi eta eskola eta herrian jarraitzen du. Horrek lagunduko dio haurrari sustrai sendoak ezartzen bere bizitzako proiektua garatzen. Haurrak bere inguru hurbilean ikasteko eskubidea aldarrikatu nahi dugu. Herri txikiak eskola behar duen bezala, eskolak herria behar duelako. Herri eta auzo txikien etorkizuna zuzen-zuzenean eskolaren eskuetatik igarotzen da, funtzio sozial ezinbestekoa baitu eskolak herri txikien bizi-iraupenean. Eta era berean, herri txikiak eskolari ingurune hurbil, naturazko, jasangarri, euskaldun eta nekazal kulturakoa eskaintzen dio. Horregatik, herri txikiak biziko badira, eskola behar du, bestelakoan bizi, nortasun eta etorkizunik gabeko gune bilakatuko dira.

Eta bukatzeko, gogoratu hezkuntzaren helburuak "izaten ikasi, elkar bizi, egin, ikasi eta ekitea" izanik, eskola hezkuntza esparru integral bezala ulertu behar dugula. Horretan sinisten dugunoi ez jarri frenorik eta eman aukera lanean jarraitzeko.

Horregatik guztiagatik, Eskola Txikietan egiten dugun lana baloratzea eta hainbat eskolak egindako eskaerak kontutan hartzea eta elkarrekin irtenbideak bilatzen saiatzea eskatzen dugu.



## Eskola Txikien MANIFESTUA

Eskola txiki bat herri baten arima da. Ez da herri txiki bat bizirik ulertzen eskolarik gabe. Haurrik ez dagoen herria itzalita dago, baina herri txikietan haurrak izateko, beharrezkoa da gizarte antolatu batean dagoen zerbitzurik funtsezkoenetako bat edukitzea: heziketa gunea, hots, Eskola Txikia. Herri txikien hustutze fenomenoari aurre egiteko ezinbestekoa da hiri eta herri nagusienetatik aparte dauden bizigune txikietako zerbitzu eta azpiegiturak mantentzea edo, behar bada, osatzea. Eta, nola ez, hauen artean garrantzi berezia dute eskolek, izan ere, hain beharrezkoa den belaunaldi-erreleboa emango bada, ezinbestekoa da hauen seme-alabek beren lehen heziketa mailak etxetik gertu eta duintasun osoz egin ahal izatea.

Eskola txikietan estamendu guztien artean ematen den hurbiltasunagatik, gutxi izanda ematen den atentzioagatik, sortzen diren harremanengatik, haurren aniztasunari eman ahal zaion trataeragatik, erabiltzen diren didaktika aurrerakoiengatik, eta beste abar askorengatik, eskola hauek kalitate handikoak direla esan dezakegu. Gainera, urte askotako esperientziak baieztatzen digunez, hamar/hamabi urterekin, hurrengo eskolara iristean, haur hauek ez dute inolako arazorik izaten lagunekin elkarbizitza oparoa gauzatzeko edo beste esparruetan bizi eta hezitako haurren mailako emaitzak lortzeko.

Eskola Txikiak euskararekin duten lotura ere azpimarratu behar da. Ahotara ekarri nahi dugu **XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak dokumentuan adierazten duena, 3. atalean** *“Lebentasunezko ildoak XXI. mendebasierako hizkuntza politikarentzat”*: ... Euskara obiko hizkuntza izango duten arnagune eta funtzioak zaindu, indartu eta hedatzea, euskararen belaunez belauneko transmisioa bermatzeko eta erreferentzialtasun soziala indartzeko. Azken batean, helburua ez baita euskararen ezagutza zabaltzea, besterik gabe, baizik eta euskal biztunak sortzea... Euskal biztunen erkidegoa trinkotzea, euskararen erabilerarako sare operatibo presentzialak zein birtualak bedatuz eta indartuz.

Duela urte batzuk, herri desberdinetako ikasleekin eskualdeka “kontzentrazio eskolak” egin ziren. “Kontzentrazio politika hau erabat kaltegarria izan zen herri txikientzat. Egoera haren aurrean topagune bat antolatu zen Eskola Txiki guztiek ziztuzten behar komunei erantzuteko asmoz; denek denei sostengu eta babes eman ahal izateko koordinakundeak sortu ziren eta gaur egun Eskola Txikien Koordinakundeak funtzionatzeaz gain, hainbat herritan Eskola izatea eta bultzatzea lortu da.

### Etorkizunerako zer nahi dugu?

- Egun dauden Eskola Txikien mantentzea eta handitzea nahi dugu. Eskola Mapan gure berezitasunak adieraztea eta kontuan hartzea.
- Herri txiki guztietan, auzoetan, 0-3 eskaintza zabaltzea.
- Irakasleen egonkortasunari irtenbideak bilatzea eta martxan jartzea.
- Eskola Txikien arteko harremanak sendotzea, elkarren arteko proiektuak garatuz.
- Eskola Txikien abantailak gizarteratzea.
- Eskola zabaldu nahi duten herriei laguntza eskaintzea eta gauzak erraztea.

2009ko abenduaren 12an




“Itziarren umeek eskola behar dute! 0-12 urte” eskuorritik hartuta.



la ehun umeren  
guraso gara gu,  
aspaldian arazo  
larria dauka,  
halare Itziarrek  
lanean dihardu,  
guk egin behar dugu  
geurearen kargu,  
herriak derrigorrez  
eskola behar du!

(Esne saltzailearen doinua)

## Kosmodetekttagailua ikasgelara Zientzia sustatzeko tresna



**Zientzia arloa sustatzeko asmoz, “Kosmodetekttagailua ikasgelara” egitasmoa abian jarri du Donostiako KutxaGuneak Bizkaia eta Gipuzkoako sei ikastetxetan.**

**Horretarako, Frantziako Martseila unibertsitateko irakasle den JOSE BUSTO ekarri du tresna aurkeztera eta horrekin aritu behar diren irakasleak prestatzera. Hona hemen hark esandakoa.**

**Nola sortu da kosmodetekttagailuaren ideia?**

**Jose Busto.** Gero eta gazte gutxiagok ikasi nahi du zientzia arloa. Horrek, arazoak sortu ditu European.

Egoera horren aurrean, eta zientziak ilusioa eta gogo berria sor ditzan, era errazean eta zientzia modu erakargarrian ikastetxeetara gerturatzeko ahalegina da kosmodetekttagailua.

**Zure ustez, zergatik ematen ari da zientziaren gaineko urruntze fenomeno hori?**

Frantzian behintzat, Fisika, Mekanika, Elektrizitatea... XIX. mendeko oinarritan irakasten ari da. Hori ongi da-

go, baina amesteko, ikertzeko gogo sortzeko, astrofisika, mekanika kuantikoa, unibertsoa eta abar eragingarriagoak dira, eta hori ez da irakasten zaila delakoan. Baina, gai horiei buruz oinarritzko ikasketa errazak egin litezke eta gazteak zulo beltzak direla, galaxiak... amestera gonbida genitzaizke.

**Lan munduan sartzeko, gainera, aukera ugari eskaintzen dituzte zientziek, ezta?**

Bai. Ikerketan aritzeko eskaintza ez da hain ugaria, baina lan mundurako bai. Fisikan, Kimikan, Matematikan... hutsune handia dago eta jende prestatua behar da.

**Zuen ahalegina, kosmodetekttagailuaren aitzakia hartuta, gazteak zientzia mundura erakartzea da, beraz.**

Hori da. Duela bost urte aurkeztu genuen ideia Martseilan. Garapen didaktoa egin dugu eta horrelako zazpi tresna banatu berriak ditugu Frantziako ikastetxeetan. Hemen, aldi berean, interesa agertu du KutxaGuneak eta tresna bat ekarri dugu.

**Nola funtzionatzen du tresnak?**

Lurraren atmosfera etengabe bonbardatzen duten oinarritzko partikula kargatuak (protoiak, elektroiak...) edo fotoiak dira, funtsean, izpi kosmikoak. Horiek, galaxiatik edo galaxiaz kanpotik etor daitezke, esate baterako eguzki-erupzioetatik, supernoba izarren ez-tandatik, neutroi-izarretatik edo zulo beltzetatik.

Lurraren atmosferan barneratzen direnean, izpi kosmikoek partikula kosmikozko sortak sortzen dituzte, eta partikula horietatik sarkorrenak, *muoiak*, lurrazalera iristen dira.

Erradiazio kosmikoa —batez ere *muoiak*— detektatzeko eta aztertzeke balio duen gailu simple bat da.

**Nola garatuko da?**

Hasieran, irakasleak prestatuko ditugu eta ikastetxe bakoitzak 3 aste jarraian izango du gailua. Zer eta nola ikertu zentroak aukeratzen du. Ondoren, denen emaitzak parteka litezke.

Hemen, batxilergoko sei ikastetxek hartuko dute parte esperientzian.



# EMMI PIKLER: haurren autonomia



Otsailaren 5ean (ostirala) DURANGON - Otsailaren 6an (larunbata) DONOSTIAN  
Oro har, saio bera izango da bi tokietan

9:00 Karpetak eta materiala banatzen hasiko da.

9:30 Emmi PIKLER. Marko orokorra.

\* Ezosi ARIZAGA. Bergarako psikomotrizitate taldekoa.

11:00-11:30 Atsedena

11:30 Emmi Piklerren ekarpena zaintzan oinarrituta (autonomia, errespetua...). Ikuspegi orokorretik partikularrera, janariaren gaian sakonduz.

\* Montse FABRES. Kataluniako "Mestres per l'AUTONOMIA" taldeko kidea (gaztelaniaz).

13:00 Mahai ingurua. Kezka eta galderentzako tartea.

\* Ezosi ARIZAGA eta Montse FABRES

14:00-15:30 Atsedena

15:30 Haur Hezkuntzan egindako esperientziak

- Kataluniako Torrelles-eko esperientzia.

\* Neus PAÑELLA. Eskolako irakaslea (gaztelaniaz).

Larunbatean, Neus Pañellaz gain:

\* Nafarroako Aintzane BULDAIN eta Alfredo HOYUELOS... \* Ana ARAUJO...



144.



Informazioa eta izena ematea  
943 371 408  
[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

## Bigarren mailako haurrak lehen mailako herrialde batean



Galdera horri erantzunez, atea zabaldu nahi diogu hausnarketari. Ongizate-gizarte honetan, haurtzaroari eskaintzen zaion arreta nahikoa ote den zalantzan jartzea da gure asmoa. Eta hauxe galdetu nahi diegu erakunde publikoei: haurrak babesten eta zaintzen al dituzue merezi duten bezala? Izan ere, gure ustez, haur txiki eta familia ugari sufritzen ari dira modu egokia-goan kudea daitezkeen zenbait egoeraren ondorioz. Jakin badakigu bizitza oso konplexua dela, eta, horregatik, balio handia ematen diegu arazoak sortu beharrean irtenbideak eskaintzen dituzten aukerei.

Industrializazioaren ondorioak eza-gunak dira denontzat, eta badakigu ekoizpenerako baliabideen eta bitarteko ekonomikoen beharrak oinarritzko aldatetak eragiten dituela harremanetan. Ikusten dugu, horrek guztiak, lan harremanei, gure bizilekuan elkarreragiteko moduari eta, bereziki, pertsonen arteko komunikazioari eragiten diela.

Gizakia orain arte ezagutu ez diren gaitasun sozialak garatzen ari da; gure



**Jose Ramon MAUDUIT**

PSIKOTERAPEUTA ETA ASKA ELKARTEKO KIDEA

kosmosari buruz ia guztia ezagutzen dugu, munduko edozein txokotara ailegatzen gara instant batean. Baina ez gara hain azkarrak gizakiaren hazte eta heltze garaiak, hots, aldi kritikoak, ulertzeko eta errespetatzeko.

Gizakia hazten den inguruaren eta izaten dituen lehendabiziko harremanen kalitatearen garrantziaz hitz egiten duen liburu andana idatzi da. Liburu horiek gorabehera, gertatzen zaiena hitzen bidez adierazteko gaitasuna ez

duten bitartean, umeak, ezer gertatuko ez balitzaie bezala edo ezer sentituko ez balute bezala tratatzen jarraitzen dugu.

Osasunaren alorreko adituen eskutik, gero eta gehiago dakigu banaketa goiztiarrek nerbio sistemaren garapenean duten eraginari buruz. Baita erreferentzia-irudi ziurrak izateak duen garrantziari buruz ere. Eta, hala ere, oso samurtasun eskasarekin kudeatzen ditugu gai horiek. Bai osasun sistematik eta baita hezkuntza sistematik ere. Adibidez, urte batekin, umeak haurtzaindegian negar malkotan uzten ditugunean guraso biek lanera joan behar dutelako.

Guraso horien sentiberatasunarekin ere ez dugu samurtasunez jokatzeko. Ez diogu arretaz begiratzen guraso eta seme-alaba horiek banatzen direnean gertatzen zaienari. Zer gertatzen ari da beraien barruan? Gero eta frogazientifiko gehiagok baieztatzen dute haurrak sufritu egiten duela, eta ondorioak antzeman daitezkeela.

Gure gorputza urte luzeetan joaten da osatzen, eta frogatuta dago gure bizi-

tzako lehendabiziko hiru urteetan jolas egiteko aukera errazten ez bazaigu, eta beste pertsonekin kontaktu fisikorik izaten ez badugu, adin bereko gainerako umeez baino garun txikiagoa garatzen dugula. Hain zuzen ere, %20-%30 txikiagoa. Ama asko beren seme-alabengandik ez urruntzen saiatzen dira. Ama-senak bultzatuta, haurrak bakarrik senti ez daitezen, eta edozein arazori aurre egiteko haurrek ondoan senti ditzaten.

Giza gaitasunei buruzko ezjakintasuna nabarmena da. Eta, era berean, bikoteek eta haien seme-alabek hain une berezietan sentitzen duten ahultasunaren aurrean mespretxua sumatzen da. Sinestarazi nahi digute modernoagoa eta aseptikoagoa dela inkubagailu baten erantzun mekaniko eta sofistikatua. Ustez, amak egiten jakin izan ez duena erregulatuko ei du makina horrek. Ama bakarrik sentitzen da, gizatiarra ez den mundu batean balego bezala. Inork ulertuko ez balu bezala.

Zenbait gauza, osatzeko erabili beharrean, ordezkatzeko erabiltzen ditugu. Eta akats larria da hori. Azken batean, gurasoen eta haurren arteko harreman estu eta berezi hori kaltetzen badugu, lotura harreman goiztiar hori blokeatzen badugu, bakardadearekin egingo dugu topo. Gero eta hotzagoa den mundu bateko bakardadea, gizatiarra ez den mundu batekoa.

Gauza bera gertatzen da haurtzaindegietan. Haurrak lau hilabete pasatu ditu amagandik banandu gabe, elkarrengana ohitzen. Eta bat-batean, hila-beteko EGOKITZAPENAREN ostean, haurrek 6 eta 8 ordu arteko hutsuneak jasatea espero dugu. Zenbat ama urruntzen dira haurtzaindegitik malko-ei ezin eutsirik? Berriro ere bakarrik, gizatiarra ez den mundu batean balego bezala. Inork ulertuko ez balu bezala.

Naturak, batzuetan, gutziak izaten ditu.

Dirudienez, oraindik ez dugu geure buruarekin topo egin. Gure iraganean pilatzen joan garen gabeziek arinegi ibilarazten gaituzte batzuetan, eta etsipenera eramaten beste zenbaitetan.

Gure gurasoek biziraun ahal izateko jasasun zuten eskasiak eta teknologia berrien boomak eduki nahi izatera garamatza, jabe izatera...

Horrela, 18 urte betetzera ailegatzeko garenean, inork ez digu galdetzen heldutasun emozionala lortu ote dugun, gure ideien jabe ote garen, bakarrik egoten eta funtzionatzen ba al dakigun, gure nahiak eta beharrak adieraztea kostatzen zaigun ala ez...

Izan ere, 18 urte betetzean gizaratean leku bat izatearekin egiten da amets. Goi mailako ikasketak egitearekin edo lanpostu fidagarri bat bilatzearekin. Baita adinez nagusi izateak eta norberaren bizimodua egin ahal izateak eskaintzen duen askatasunaz gozatzearekin ere.

Eta, batez beste, 30 urte egiten ditugun arte ez dugu seme-alabak izateko erabakirik hartzen. Zergatik? Lanpostu egonkor bat lortzeko borroka amaigabea delako, lan handia egin ostean jasotako aitortpen profesionala bilatzen delako, bikote harreman egonkor bat desio delako, etxe batedukitzeko, hipoteka ordaindu ahal izateko eta egunero ko bizitzarako gastuei aurre egiteko lanpostu duin bat lortzea ezinbestekoa delako...

Zenbait bikoteek, seme-alabak izatea erabakitzen badute ere, ez dute aurrez aipatu dugun guztia jada pasatu dutelako egiten. Hau da, akaso ez dute beren lekua topatu maila pertsonalean, ezta gizaratean ere. Eta akaso ez daude hurrengo etaparako prest, hots, haur bat hezteko prest.

Emakumea lan esparruan sartzeak, profesional gisa sona eskuratzeko egindako ahaleginak, gizarateko ardura postuetan gizonaren maila bera lortzeko, autonomia ekonomikoa eta bikote harremanetan independentzia eduki ahal izateak... Horiek guztiek agerian uzten dute gure bizitzako eremu intimoenean, hots, etxean, doikuntzak behar direla.

Orain arte etxean pribilegioak izan dituen gizon horrek, besteak beste, dirua eramaten zuelako, espazioa partekatzen ikasi behar du, eta etxeko lanak

**Gizakia orain arte ezagutu ez diren gaitasun sozialak garatzen ari da; gure kosmosari buruz ia guztia ezagutzen dugu, munduko edozein txokotara ailegatzeko gara istant batean. Baina ez gara hain azkarrak gizakiaren hazte eta heltze garaiak, hots,aldi kritikoak, ulertzeko eta errespetatzeko.**



egin behar ditu. Pixoihalak aldatu eta gauaren erdian haurra lasaitzera jaiki behar du.

Gizaratean orekari eustea eta, gainera, seme-alabei dugun onena emateko prest egotea etorkizunerako helburua izan daiteke, baina une honetan ez da hori hobekien egiten dakiguna.

Oztopo asko, zailtasun ugari daude guraso jardunerako: enpresetan, osasun erakundeetan, administrazioan edota hezkuntzan lan egiten dute emakume askok, eta ezin diote erritmoari eutsi. Inork ez ditu entzuten, eta haurren erritmoa arriskuan jartzen jarraitzeko presionatzen dituzte. Eta zenbaitetan, erditze goiztiarrak eragiten dituzte. Erditze goiztiarrek amarengan eta haurrengan izan ditzaketen ondorioekin.

Ama askorentzat mingarria eta bigarrena da hainbeste lan egin ostean lortutakoa utzi behar izatea, eta ikasketak batzuk egin eta lan munduan toki bat egitea lortu ostean, denboraldi baterako uztea. Familia batzuentzat haurren hazkuntzak enpresa proiektu baten antza du, lau hilabeteko amatasun baja eta buelta lanera, ezer gertatu ez balitz bezala. Horrek, horrela azalduta, neurritz kanpokoa dirudi, baina, egia-tan, guztia produktibitate bideratuta dago. Emakumeak jasotzen duen mezua hori baldin bada, imajina ezazue

**Zergatik ez da aztertzen bizi kalitatea hobetzea helburu duten proiektuei jarraipena emateko aukera? Hezkuntzako eta osasun alorreko erakundeek zergatik ez dute hausnartzen horrelako proiektuen jarraipena bermatzeko beharri buruz? Posible al da gure seme-alabak lehen mailako planoan egotea, lehen mailako herrialde batean?**



zein den gizonari iristen zaiona. Azken horrek laneko konpromisoei ez ezik, gizartekoei ere erantzun behar die. Ondorioz, ez dio emazteari ginekologoa-rengana lagunduko, ezta erditzea prestatzera ere. Azken batean, guztia profesionalak ezarrita dago, ia guztia hobeto esanda. Izan ere, etxera ailegatzean gainerakoak desagertu egiten dira, eta orduan hasten da benetakorrealitatea familiako hiru kideentzat.

Usurbilgo andereñoek *Hazi eta Hezi* ekimeneko galdera-andana pasatu zieten ikasleen gurasoei. Aurrez aipatutakoak berrestez gain, etxean bizi den egoera izugarria da. Ia ama guztiek azaldu zuten babesa falta zitzaizela. Bai emozionalki eta baita bazkaria egitea bezalako oinarrizko beharrei dagokien ere. Ezintasuna sentitzen dute bat-batean gau eta egun euren haur jaioberriarekin aurkitzen direnean, eta besterik egin ezin dutenean. Haurrak negar egiten du, eta amak ere bai. Zer gertatzen den ulertu gabe, sentimendu guztiak nahasita, etxea hankaz gora...

Animalien habiak leku pribilegiatuak dira, beroak, seguruak, ongi elikatuak... Zer gertatzen da, baina, gizakien habiarekin? (Ama batek azaldu zuen lehen mailako 16 egunetan ez zuela galletak besterik jan).

Behinola, hautemate goiztiarrari eta garapen psikomotorrari buruzko

ikastaro batean izan nintzen, eta gehienak 0-3 urte bitarteko haurrekin lan egiten zuten irakasleak ziren. Haietako batek, malkoei eutsi ezinik, gogoratu zuen zein gogorra egin zitzaion 4 hilabeteko bere alaba beste andereño batzuekin uztea. Berak, bitartean, amaren hutsuneagatik negarrez ari ziren beste haur batzuk zaintzen zituen.

Usurbilgo andereñoek urteak daramatzate kalitatezko hezkuntza proiektu baten alde lanean. Urratsez urrats, hainbat esparru bereganatzen joan dira, eta egiteko beste modu bat ezartzen. Horien artean aipatzekoa da lehen mailarako eta komunitaterako prebentzio proiektuak. Horietan, beste profesional batzuekin eta autolaguntza taldeekin batera, honako hau lortu nahi dute: ahal izanez gero, gauregun haurren eta helduen arteko harremanetan ezarrita dauden gizarte egokitzapen traumatikoen ereduak ez errepikatzea.

Izan ere, finantziario arazoez gain, sentsibilizazio arazoa ere badago. Gurasoak dira interesatu nagusiak, baina ezin diote datorrenari aurea hartu. Ez baitakite zer datorkien. Horregatik jarri behar da martxan, lehenbailehen, gurasoen arteko babesa. Euren artean hitz egin dezaten eta, orain arte, abisurik eman gabe azaltzen ziren estresari, ezintasunari eta bakardadeari aurre egiteko baliabideak bilatzen has daitezten.

Horrela, beste behin ikus dezakegu elkarrekin lan egin behar dugula eta beharrezko baliabideak bilatu behar ditugula gizakiaren eta gizartearen hazkuntzari lagunduko dion kalitatezko lan

bat burutu ahal izateko. Oinarrizkotik abiatuta: alor pertsonaletik, egunero-kotasunetik, osasunaren garapenetik eta baita hezkuntzaren garapenetik ere.

Prebentzioa kontuan hartzea ez litzateke luxuzko atalean sartu behar, kulturarenean baizik. Bertatik, eragile politikoei pertsonak babestu beharko lituzkete. Hiritarren benetakorrekiko sentsibilitatea azaldu behar lukete.

Erakundeek prebentzioari begira egiten duten apustua burutsua da oso. Izan ere, epe luzera agertzen diren gatazka ugari konpontzen ditu. Horregatik uste dugu lehentasuna eman behar zaiela "erantzun azkarra" ematen duten eta hauteskunde kutsua duten diruz lagundutako beste ekimen batzuen aurrean.

Zergatik ez da aztertzen bizi kalitatea hobetzea helburu duten proiektuei jarraipena emateko aukera? Hezkuntzako eta osasun alorreko erakundeek zergatik ez dute hausnartzen horrelako proiektuen jarraipena bermatzeko beharri buruz? Posible al da gure seme-alabak lehen mailako planoan egotea, lehen mailako herrialde batean?

Uste dut gure esku dagoela. Politiko gisa, hiritar gisa, profesional gisa, guraso gisa eta gure haurren familia gisa. Lehentasunezko erronka baldin bada, beste bide batzuk bilatzea posible izango da. Besteak beste, gure zerbitzuen, gure bizitzaren eta gure seme-alaben bizitzaren kalitatea hobetzeko lanean jarraitu nahi dugulako.





Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa duen edonoren  
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal  
hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.

urtarrila

berriak

# Irakurketa-idazketa Ingalaterran



Jane Medwell (Warwick unibertsitatea) eta Iruñe Ibarra (EHU)

2009ko azaroaren 24an "Literacy in England" mintegia egin zen Euskal Herriko Unibertsitatean. Hezkuntza Fakultateko Hezkuntzarako eta Ikerkuntz eta Diagnosi Metodoen (HIDIM) sailak antolatu zuen, bertan gaiarekin zerikusia duen ikerketa-lerro bat dago eta.

Warwick Unibertsitateko Institute of Education-eko *Jane Medwell* etorri zen eta Ingalaterran irakurketa-idazketa nola lantzen duten geletan azaldu zuen. Lehen Hezkuntzako 7 eta 11 urte bitartekoek nazio mailako ebaluazioak izaten dituzte eta ebaluazio hark sorta-

razten dituen gelako dinamikak deskribatu zituen.

1998tik aurrera, Irakurketa-idazketako Estrategia Nazionala jarri zuten martxan arlo horretan emaitza hobek lortzeko asmoz. "Literacy hour" da estrategia horretan gertatu den aldaketarik esanguratsuen. Egunero, Lehen Hezkuntzako gela guztietan irakurketa-idazketa, ofizialki, eta instrukzio zuzen baten bidez, burutzen da: lehen hamabost minututan talde handian eginiko irakurketak egiten dira, beste hamabost minututan hitzetan eta haien esan nahietan zentratzen



Jane Medwell

dira, ondorengo hogei minututan norbanako lana eta talde txikietako lana egiten dute eta azkeneko hamar minututan talde handiko eztabaidaren bidez zalantzak argitzen dira, kritika eraikitzaileak egin, *feedback*-a eman...

Irakurketa eta idazketako ebaluazioen ezaugarriak komentatu ondoren, eskuzko idazketaren automatizazioak duen garrantzia nabarmendu zuen. Ebaluazio horietan mutilek emaitza eskasagoak izaten dituzte neskek baino eta datu horrekin kezkatuta daude Ingalaterran.

## Ikasleak on-line

*Asmoz* fundazioak Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta UNEDekin batera kudeatzen ditu Internet bidezko master ofizialak, berezko tituluak eta etengabeko prestakuntzako ikastaroak. Duela bi urte sinatutako akordioa gero eta indartsuagoa da, eta aurten 300 ikaslek baino gehiagok ikasiko dute Internet bidez.

*Asmoz* fundazioaren arabera, ikasteko modu horrek "askatasun eta gaitasun handia" eskaintzen ditu. "Ikasleak beste herrialde batzuetako irakasleekin jar daitezke harremanetan, eta edozein unetan haiekin kontaktuan jartzen ahal dira zalantzak argitzeko". Dena den, sistema horrek disziplina handia eskatzen duela diote. Izan ere, ikasteko modu horrek ez du ordutegi finkorik, eta norberari dagokio errutina bat ezartzea.

Ikasleek, orotara, 200 irakasle izango dituzte. Gehienak EHukoak eta UNEDekoak diren arren 20 herrialdeetakoak izango dira irakasleak.



# Eskerrik asko andereño!



Joan den abenduaren 16an hotz egiten bazuen ere Gipuzkoako Foru Aldundiak harrera beroa egin zien XX. mendeko 60ko hamarkadan lehenengo Ikastolak antolatu zituzten andereñoi. Gipuzkoako urrezko domina eman zieten Donostiako Diputazioaren egoitzan egindako omenaldian. Orotara 80 andereño inguru bildu ziren ekitaldira.

Markel Olano Ahaldun nagusia eta andereño guztiak diputazioaren kanpoaldean zeudela atera zen ezpata-

dantza eraikinaren beste muturretik, eta omenduen aurrean zubia egin ondoren ezpata-dantza egin zuten. Ondoren, dantzariak ezpatekin egindako arkutik pasa ziren omendu guztiak Foru Aldundira sartzeko.

“Ikastolen mugimendua XX. mendeko azken 50 urteetan euskal nortasuna berreskuratzeko lanaren oinarri sendoenetako bat” izan dela goraipatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. “Hizkuntza eta herrigintza ikuspegia berreskuratzeko Ikastolak ezinbeste-



ko eragile” izan direla nabarmendu zuten urrezko domiña andereñoi eman ez. Mari Karmen Mitxelena andereñoak jaso zuen domina den izenean.

## Gero eta ikasle gehiago Pedagogian

Pedagogia ikastea modan omen dago. Hori diote behintzat datuek. Izan ere, Euskal Herriko Unibertsitateak eskaintzen dituen ikasketen artean Pedagogia da 2009-2010 ikasturtean ikasle kopuruaren igoera handiena izan duena. Azken hiru urteetan Pedagogian matrikulatu diren ikasleen kopurua izugarri hazi da; 2006an 40 ikaslek baino ez zuten izena eman Pedagogia ikasteko. Aurtengoa, aldiz, 156 ikasle daude matrikulatuta. Hiru edo lau bider gehiago. Duela hiru urte baino 116 ikasle gehiago, EHUk emandako datuen arabera. Dena den, aldea ez da hiru urteko prozesu baten emaitza izan. Iaztik hona nabarmena izan da gorakada, 2008an 58 ikaslek eman baitzuten izena.

Arrakasta izanagatik, baina, ez du lortu oso hurbilekoa duen beste ikasketa adar bat atzean uztea. Hain zuzen ere, aurtengoa Psikologian matrikulatu da ikasle gehien. Orotara 258 gazte ari dira etorkizunean psikologoak izateko prestatzen. Txanponaren beste aldean Ingeniaritza ikasketak egongo lirake. EHUren datuen arabera Sistemen Informatikan Ingeniari Teknikoa izateko 32 ikaslek baino ez dute eman izena, eta hiru urteko epean 79 ikasle galdu ditu, 2006an 111 gazte matrikulatu baitziren.

# Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lehen Hezkuntzako testu-liburuetan behar bezala islatzen dira gaztelaniaren ikaskuntzarako *komunikazio ikuspuntuaren* planteamendua

*Lehen Hezkuntzako gaztelaniako testu liburuetakomunikazio-ikuspuntua. EAEn erabiltzen diren materialen azterketa.* Horixe da Carmen Camps Peman EHUko irakasleak egingandako doktore tesiaren izenburua. Ikerketa horretan, 2006-2007 ikasturteko Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren ziklotako gaztelaniazko testu liburuak aztertu ditu ikertzaileak.

LOGSE legearekin gaztelania alorreko curriculumak aldatu egin zela kontuan eduki beharreko datua da. Komunikazio-ikuspuntua norberaren gain hartu, eta gaztelania irakasteko eta ikasteko planteamendu berri bat ezarri zen, EHUk kaleratutako oharrek gogo-

rarazten duenez.

Material horiek guztiak aztertu ostean, Campsentzat Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako testu-liburuetan behar bezala islatzen da komunikazio-ikuspuntua. Bere uste, “komunikazioaren alorra ondo asko garatu dute”.

Argitaratutako material horietan “*Elkar* eta *Erein* argitaletxeek komunikazio-proposamen berriak txertatzen dituztela eta erabilera anitzeko testuak dituztela” ikusi du. Baita komunikaziorako gaitasuna edo kompetentzia gartzentzen dutela ere.

*Santillanako Plural* argitaletxeari dagokionez, ikusi du hezkuntza-testuinguru elebidunerako material apro-

posa izan arren, ez duela komunikazio-ikuspuntua aproposik, batez ere hizkuntzari buruz egiten duen hausnarke-ta ez datorrelako bat hizkuntzaren komunikaziorako erabilerekin.

*Entre Amigos* argitaletxeak *Plural*-ek baino bereizgarri gutxiago ditu komunikazio-ikuspuntuen alorrari dagokionez. Campsen esanean, ahozkoa lantzeko proposamenak LOGSE legean ezarritako komunikazio-proposamenekiko erabat inkongruenteak dira.

Azkenik, Campsek ikusi du *Deja buella* argitaletxeak ez dituela kontuan hartzen curriculum-diseinuaren printzipioak.

## Egia ote?

Donostiako Egia auzoko Ametzagaña elkarteak kaleratu du *Egia ote?* izeneko mahai-jokoa.

Helburu nagusia: euskara eta euskal kultura sustatzea.

Mahai-jolas horretan, jokalariek Gladys-enea parketik abiatuta Egia-



ko kaleetan barrena auzo osoa zeharkatu eta hasierara itzuli beharko dute. Bidean auzoari buruzko hainbat galdera erantzun beharko dituzte. Jolasa dinamizatzeko eta arauak azaltzeko gurasoak eta hezitzaileak egokiak dira.

## Ikastaroak

IMHko 2010eko langile eta langabetuen ikastaroentzako programazioa abian daude. 214 ikastaro programatu dira.

Euskaraz eskainiko direnak ondorengo hauek izango dira:

- Automatismo pneumatiko eta elektroneumatikoak
- Automatismo hidraulikoak
- Automatismo elektriko kableatuak
- CNC fresatzeko makinaren programazioa (HEIDENHAIN)
- CNC fresatzeko makinaren prestaketa (HEIDENHAIN)
- CNC tornua 1. maila (FAGOR): programazioa.

# Hezkuntza Deialdia. Batzar irekia urtarrilaren 16an



## Hezkuntza Deialdia

Gauzak horrela, txanponaren bi aldeak ikusten ari gara hezkuntzan: alde batean euskara, euskal kultura, kultur-artekotasuna, parekidetza, Euskal Herria, pedagogia aurrerakoia garatzeko Hezkuntza Sistema Nazionala planteatzen duen herria; beste aldean, gazte-lera/frantsesa, adoktrinamendua, uniformizazioa, pribatizazioa inposatu nahi duten estatuak.

Azken hilabete eta asteotan hezkuntzako norbanako eta eragileekin hitz egiten aritu gara, elkarrizketetatik bi ondorio nagusi atera ditugu: batetik, Hezkuntza Sistema Nazionalaren alde gaudenok gure arteko elkarlana areagotu behar dugu, gure proiektuek aurrera egin dezaten lortzeko; bestetik, inposaketen aurrean tinko eta elkarrekin erantzuteko mobilizatu beharra dago. Zentzu horretan, hezkuntza egoeraz hausnartzeko eta egoeraren aurrean zein mobilizazio antolatu erabakitzeke, azken urte hauetan hezkuntzan izan den batzar jendetsu eta anitzena egiteko deia zabaldu nahi dugu, Hezkuntza Deialdia hedatu nahi dugu. Urtarrilaren 16an, egungo hezkuntza egoeraren gaineko kezka duten eta Hezkuntza Sistema Nazionalaren alde dauden ikasle, irakasle, guraso eta herritarrontzat batzar irekia Donostian.

Azken aste eta hilabeteak gorabehera handikoak izaten ari dira hezkuntzan: EAEko Curriculum dekretua, Nafarroan TIL eredia eta Euskal Herria terminoa; Ipar Euskal Herrian, berriz, Balladur legea eta abar. Zer ari da gertatzen hezkuntzan? EHBĒren aburuz, Espainia eta Frantzia hezkuntza erreformatzen ari dira ikasleen adoktrinamenduan sakonduz, estatuak, linguistikoki, kulturalki eta nortasun mailan uniformizatzeko.

Kasualitatezko erabakiak al dira? Inondik inora ere ez. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroaren kasuan, argi dago, espainiar estatuko bi alderdi nagusien arteko paktu bat dagoela hezkuntzaren bidez "barbaroen" lurralde hauek espainiar nortasunez asetzeko. Hau ez dugu guk esaten, PPK eta PSEk EAerako sinatu zuten akordioaren atal nagusietakoak dio: *EAEn aldaketa nagusiki hezkuntzatik etorri behar da*. EAEn ageriko paktua dena, Nafarroan ezkutukoa baina oso erreala da.

Herri honek, hezkuntzan erabakitzeke eskubidea ukatua izanik ere, hezkuntza sistema propiorik izan gabe ere, erabaki asko bere kabuz hartu ditu: ikastolak sortzea eta garatzea; eskola publiko eta pribatuetan euskarazko lerroak zabaltzea; Haur Eskola euskaldun eta hezitzaileak irekitzea; Lanbide Heziketak euskalduntzea; Euskal Curriculum sortzea; Euskal Unibertsitatea proiektuaren oinarriak publikatzea eta abar. Estatuak "aski da!" esan du.

Guretzako edalontzia erdi hutsik baldin badago ere, beraientzako gainezka egin du.

Isabel Celaá eta Alberto Catalanen dekretu eta neurrien bitartez Hezkuntza Sistema Nazionalaren eraikuntza gelditu eta hezkuntza sistema espainiolaren inposaketa indartu nahi dute.





**Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen abendu-ko eztabaidak utzi diguna...**

**>>> Eusko Jaurlaritzaren curriculum dekretu egitasmoak euskara eta gaztelania parekatuko ditu. Isabel Celaá Hezkuntza Sailburuaren hitzetan, elebitasun orekatua lortzeko helburuarekin. Bide horretatik helburua betetzea posible dela uste al duzu?**

> Zakurraren putza!

Lehenik eta behin, "elebitasun orekatua" kontzeptua baino, "elebiduntasun orekatua" egokiagoa iruditzen zaidala esan nahi nuke, pertsonok potentzialki dugun hizkuntza-gaitasun batez ari gara eta. Elebitasunaren dimensio sozialerako erabiliko nuke nik "elebitasun orekatua" kontzeptua.

Hori argituta, zera esan nahi nuke: nik dakidala behintzat, oso zaila dela elebiduntasun guztiz orekatua lortzea. Gerta liteke bi, hiru... hizkuntzetan gaitasun-maila beretsua izatea; ordea, hori ez da norma. Izan ere, hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen dakigun unetik beretik hizketarako horietako bat aukeratu behar dugu, eta inguru soziolinguistikoaren arabera, hizkuntza horietako baten aldera gehixeago lerratuko gara. Hala eta guztiz ere, uste dut, euskaraz, gaztelaniaz nahiz frantsesez ikasleek ahalik eta konpetentzia komunikatibo handiena izatea lortu behar lukeela hezkuntza-sistemak.

Eta, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa zein den jakina izanik, hezkuntza-sisteman gaztelania eta euskara parekatzea al da xede horretarako modurik egokiena? EIFE ikerketa-lanek argi erakutsi dute, A eta B ereduetan dabilzan ikasleek ez dutela behar besteko hizkuntza-gaitasuna lortzen; aitzitik, gaztelania-mailari dagokionez, A, B zein D eredu-tako ikasleek emaitza beretsuak lortzen dituzte. Eztabaida-galderari eman dakioken erantzunik onena, hortxe! *Aritz*

> Elebitasun orekatua

Elebitasun orekatua lortzeko egin behar den lehen gauza herrialdeko errealitatea ezagutzea da. Gizartean euskara hizkuntza guztia den bitartean eskoletan diskriminazio positiboa eman behar zaio, gutxienez horrela, nolabaiteko parekotasun bat egon dadin. Argi geratu da A ereduarekin ez dela parekotasuna lortzen, ezta B ereduarekin ere. D eredu da parekotasuna lortzen duen bakarra. Euskara hizkuntz kurrikular izanik lortuko da gizartean euskarak merezi duen txokoa lortzea, baina dekretu berri honek bigarren hizkuntza izatera pasatzen du, bere bizindarra koloka larrian jarriz. *Joseba Osoro*

> Ados, ia erabat!

Ados ia erabat Josebak esandakoarekin; baina bada berak esandakotik hain argi ez dudan kontu bat: "Euskara hizkuntz kurrikularra izanik lortuko da gizartean euskarak merezi duen txokoa lortzea". Zer da zure ustez, Joseba, euskarak merezi duen txokoa lortzea? Euskara hizkuntza kurrikular izan duten horiek eskolaz kanpo ere euskara erabiltzea? Hori hala izanik, ez dut uste euskara hizkuntza kurrikular izate hutsak euskara erabiltzea bermatzen duenik. Ez al duzu uste? Hor badaude hizkuntza-erabilera baldintzatzen duten aldagai askozaz gehiago ere: hizkuntza-jarrera eta -portaerak, identitate etnolinguistikoa... *Aritz*

## **Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...**

**>>> Eztabaida bera mantentzen da.**

## **Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?**

Zure helbide elektronikoan Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoan harpidetu besterik ez duzu egin behar. [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

# argitalpenak



## Seaska 40 urte euskararen alde

Maialen Garat/ Xan Aire  
ELKAR

Seaskak, Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoako 27 ikastolen federazioak, 40 urte bete ditu aurten. Liburu honek urte horietan Seaskaren baitan bizitako unerik esanguratsuenak biltzen ditu. Bertako hizkuntza legez kanpo den herrian, euskararen aldeko borrokaren isla da. Hurbilpen bat izan nahi du, euskarak Ipar Euskal Herrian izan duen zutabe garrantzitsua ezagutzeko •



## Arritxu eta Mago Zuriaren anaidia

Itziar Madina/ Leire Urbeltz  
TXALAPARTA

Mitologia eta gaurko gazteen mundua nahasi ditu Itziar Madina idazleak istorio honetan. Arritxu izeneko neskatoa da istorio honetako protagonista, eta Iturzulogaineko lamiek bere laguntza beharko dute. Bahituta dagoen Dалан lamia ederra askatzeko, hain zuzen. Leire Urbeltz marrazkilaria irudikatu ditu istorioko pertsonaia guztiak •



## Iraunkortasun hezkuntzarako eskuliburua

UNESCO ETXEA

Gobernuz kanpoko Unesco etxea erakundeak iraunkortasuna lantzeko eskuliburua argitaratu du. Material didaktiko horrekin iraunkortasunaren hainbat dimentsio lantzea dute helburu (ingurugiroa, gizartea, hezkuntza, ekonomia). Orotara hemeretzi ataleko lana osatu dute, eta sarean ere eskura daiteke: [www.unescoeb.org](http://www.unescoeb.org) •



## Ate atzeko zuloa

Josep Sampere  
EREIN

Olga eta Alex ikaratuta daude bizi diren etxebizitza-sailean gertatzen ari diren gorabehera misteritsuak ikusita. Susmoa dute beren artean izaki arrotzen bat bizi ote den. Ia bizilagun guztiek jasan dute gertaera arraroren bat, eta hasi dira ikertzen. Duela urte batzuk bi ume desagertu omen ziren inongo arrastorik utzi gabe eta... •



## Tantak 21

EHU

Euskal Herriko Unibertsitateak aldi-aldi Tantak hezkuntza aldizkaria argitaratzen du. Oraingoan, unibertsitateko zazpi lan argitaratu ditu: sexu jasarpenak, inmigrazioa, euskara-agiriak, irakasleak Francoren garaian, Terminologia datu basea eta Gizarte hezitzaileen praktikaren gaineko gaiak aurkeztu ditu •



## Kultur artekotasan eta hiritartasun hezkuntzarako motxila

ALBOAN

Hiritartasunaren eta kultur artekotasanaren inguruko esperientziak, baliabideak, dokumentuak eta erreferentziak bildu ditu *Alboan* elkarteak DVD batean. Lau esparru lantzen dira bilduman: bakea eta gatazka, eskola eta komunitatea, artea eta bere irudikapena eta hizkuntza eta komunikazioa •

# ... nora joango gara?

## Zugarramurdiko sorginen etxea Egonaldi magikoa

Nafarroak eta Lapurdik muga egiten duten lekuan, hortxe dago Zugarramurdi (Nafarroa), eta han daude Zugarramurdiko leize ezagunak. Herriaren bazter batean, 400 bat metrora. Joan den uztailaren 20az geroztik, baina, Zugarramurdira hurbiltzen denak leize ezagunak ez ezik, Sorginen Etxea ere bisita dezake. Algara, kantu, dantza, festa, erritmo bizi eta giro jatorreko 2 edo 3 eguneko egonaldiak egin daitezke han, Urtxintxa eskolaren eskutik.



Zugarramurdiko Sorginen Etxeko egitasmoak lau ezaugarri nagusi ditu. Ipuinetan eta jolasetan oinarritzen den egonaldia da, mundu fantastiko batera bidaiara egiteko aukera paregabea eskaintzen du, adimen emozionala lantzen da eta nortasuna eraikitzeke jarduerak antolatzen dituzte. Eta, horrekin guztiarekin batera, haurrei sorginak edo aztiak garai bateko sendagile eta pertsona arruntak zirela azaltzen zaie; bizitzeko era askea, alai eta jostagarria zuten pertsona normalak zirela, hain justu. Non? Graxiana aterpetxean, Zugarramurdiko leizeetatik gertu-gertu.

### Ikasleentzako eskaintza

Egonaldiak bereziki prestatuta daude Haur Hezkuntzako (4-5 urte) eta

Lehen Hezkuntzako ikasleentzat. Bi eguneko egonaldia egin nahi izanez gero, ondorengo programa dute prestatuta Sorginen Etxean Urtxintxa eskolako arduradunek:

Haur taldeari harrera egiten zaio, eta harrera horretan aurkezpenak egiten dira. Memento horretan irakasle, ikasle, begirale eta aterpeko langileen arteko harreman sarea definitzen da, eta sare hori alai eta konfiantzazkoa izan dadin saiatzeko dira. Modu horretan, haurrari segurtasuna ematen zaio, eta etxean bezala egoteko aukera eskaintzen diote. Bizikidetzara egokia izateko, aurkezpenen ondoren taldeak egin eta arauak azaltzen dira. Haurrak lekura moldatzeko, logelak antolatu eta ingurua ezagutzea ere beharrezkoa

izango da. Inguru berri horretan atsedendaldiaz gozatu ondoren, sorgin jolas batzuk egingo dituzte, mundu fantastikoari lekua emanez eta haurrak mundu horretako partaide eginez.





## Ipuinak

Egonaldian zehar, Zugarramurdiko kobazulora bisita egingo dute haurrek. Eta han, kobazuloak berak eskaintzen duen giroaz baliatuz, ipuin bat kontatuko diete. Lehen Hezkuntzako 3tik 6ra bitarteko mailetakoko ikasleekin pista jolas bidez osatuko da ipuina. Txikiendakarekin (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1-2 mailak), ordea, sentimenduen txokoa ipuina erabiliko da. Horrela, nola pasatzen ari diren ikusi eta zein sentimendu azalerraten dituzten jakiteko. Ipuinaren helburua ipuineko pertsonaiei gertatzen zaizkien egoerekin bat egitea da. Zentzumenean barrena bidaiatu eta gorputzaren kontzientzia izatea, besteak beste. Ipuinak ispilu funtzioa betetzen du, eta, haurrek, bere burua eta ingurunea ispiluan islatuta ikusten ditu. Gainera, emozioei hitza jartzen ikasten du: beldurra, kezka, euforia... Txikienen kasuan, ipuinak konponbidea dakar, baina handien kasuan konponbidea denon artean bilatu beharko da.



## SORGINEN ETXEA

Lapiztegia kaleko Graxiana aterpean.  
31710 ZUGARRAMURDI  
Nafarroa



### Informazio gehiago:

- [www.graxiana-aterpea.com](http://www.graxiana-aterpea.com) webgunean.
- Urtxintxa eskolako telefonoan: 943 270033
- Edo [aterpeak@urtxintxa.org](mailto:aterpeak@urtxintxa.org) helbidean

### Lantegiak:

Haur txikien taldearentzat abesti jolasak dituzte prestatuta, bestelako barne jolas batzuekin batera. Nagusienekin, aldiz, lantegia egiten dute. Sorginek eda-beak prestatzen zituztela-eta, tartetxo bat egiten zaie sendabelarrei. Hurbilen ditugunen eta ezagutzen ditugunen erabilera aztertzeko baliatuko da lantegia. Lantegi hori hiru eguneko egonaldian egiten da, eta helburu hauek ditu: gaztetxoak naturara hurbiltzea eta ingurumenarekiko jarrera egokia bideratzea. Bi egunekoan, berriz, eguzki lore bat egiten dute guztien artean. Haur bakoitzak eguzki lorearen hosto bat margotzen du. Modu horretan, haur guztien parte hartzea bultzatzen da, eta emaitza talde guztiak batera lortua izaten denez, taldeko giroari bultzada ematen zaio.

Bigarren egunean, gosalduta bezain laster mailetak egin eta dena biltzen hasiko dira. Beraz, aurreko gauean lana aurreratua uztea lagungarri izango da. Guztia jaso ostean, azken jolasa egingo dute aterpe inguruan. Jolas horren bitartez talde izaera modu dibertigarrian lantzea dute helburu Urtxintxa eskolako arduradunek. Goiz erdi aldera Galtzagorrien jolasaren auzia egingo dute haurrek, eta, bukaeran, hausnarketa egin eta beraien iritzia azaltzeko aukera eskainiko zaie. Nola pasa duten jakin ondoren, hau da, sentimenduen txokoa egin ondoren, oroigarri bana emango zaie.

Urtxintxa eskolak Zugarramurdiko Sorginen Etxea ez ezik, baditu antzeko beste egitasmo batzuk abian. Pasai Donibaneko (Gipuzkoa) Piraten Etxea eta Arantzako Barnetegia (Nafarroa). Sorginen Etxearekin, beraz, euskara hutsean egiteko hiru eskaintza dituzte jada. Sorginen Etxeko eta Piraten Etxeko eskaintzak Euskal Herri osoko ikasleentzat dira. Arantzako barnetegira, aldiz, Nafarroan ikasten duten ikasleak bakarrik joan daitezke.



# atzeko atetik



## Onintza ENBEITA

BERTSOLARIA

Zazpi neska-mutil txiki  
begira irakasleari.  
Ez ginen sarri egongo  
berak gura bezain adi.  
Eskolara sartzen ginen  
ia goizero kantari;  
kantuz esaten genion  
agur ere egunari.  
Auzo eskola txiki bat  
izan genuen gidari.  
Han ekin genion pozik  
gure etorkizunari.  
Berandu erreparatu  
diogu geneukanari:  
eskola txiki batean  
ikasteko zorteari.

## Gure eskola

Gutxi ginenez, desberdin  
egiten genituen gauzak.  
Txangoak berezi ziren  
gure andereñoarentzat.  
Goiz batean oinez hasi,  
bihurgune eta aldatsak,  
ta bisitazen genuen  
geutakoen auzoren bat.  
Aitzurrak baztertu eta,  
denbora hartuz umeontzat,  
ipuin zaharrak kontatzera  
hurbildu ohi ziren hainbat.  
Oroitzapen gozoenak  
momentu hoietaz dauzkat,  
auzo osoa irakasle  
bihurtu baitzen guretzat.

Gero eskola itxita  
herri eskolara joan ginen.  
Herria legez eskola  
txikitxoa izan arren,  
beste harreman mota batzuk  
izan genituen hemen.  
Jada ez ginen ibiltzen  
txirri-txirriak topatzen.  
Giroa aldatu arren,  
giro ona ez zen eten.  
Baina hazi egin ginen;  
zortzigarren mailan geunden.  
Heldu gur(e)an genbiltzan,  
eta saiatu egin ginen.  
Frontoi ostean erretzen  
harro ikasi genuen.

*Doinua: Habanera*



Pertsona nagusiaren begirada umeen begien parean jartzera behartuta  
gaude hezitzaileok.

Imanol Urbieta

# Abenduko hotzetan...



# Nabarrak bero-bero jarriko zaitu!

